

IK/KI PROGRAMA (*«Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»*)  
TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren  
implementazioa ikasgelan

**A ESKUHARTZE EREMUA: TALDEAREN KOHESIOA**

Pere Pujolàs eta José Ramón Lago (Koordinatzaileak)

Mila Naranjo, Olga Pedragosa, Gemma Riera, Jesús Soldevila, Glòria Olmos, Alba Torner eta  
Carles Rodrigo

Vic-eko Unibertsitatea

## Aurkibidea

<b>1.</b>	<b>A esku-hartze eremua: taldearen kohesioa</b> .....	3
	Non, noiz eta nola landu taldearen kohesioa.....	4
	Taldearen kohesio-mailaren azterketaren dimentsioak.....	7
<b>1.1</b>	<b>Erabakiak hartzeko prozesuan parte-hartzea, eztabaida eta adostasuna bultzatzeko talde-dinamikak</b> .....	8
1.1.1	Talde Nominala.....	8
1.1.2	Bi zutabeak.....	9
1.1.3	Elur-bola.....	10
1.1.4	Iritzi kontrajarriak.....	11
<b>1.2</b>	<b>Taldearen barruan elkarreragina, elkar ezagutzea eta distentsioa bultzatzeko zenbait taldeko dinamika</b> .....	12
1.2.1	Pilota.....	12
1.2.2	Izenen katea.....	12
1.2.3	Aurpegia marraztea izenaren hizkiekin.....	13
1.2.4	Asmakizunen, bertsoen edo esaeren puzzleak .....	13
1.2.5	Armiarma-sarea .....	14
1.2.6	Silueta.....	14
1.2.7	Elkarriketa .....	15
1.2.8	Maleta.....	15
1.2.9	Itua eta diana .....	15
1.2.10	Orrialde horiak .....	16
1.2.11	Ondo ezagutzen dugu elkar .....	17
1.2.12	Postontzia .....	17
1.2.13	Nor da nor?.....	18
<b>1.3</b>	<b>Ikasle arruntek kideren baten inklusio-prozesuan parte har dezatela eta elkar ezagut dezatela bultzatzeko estrategiak eta dinamikak</b> .....	19
1.3.1	Kideen arteko laguntza-sarea .....	19
1.3.2	Lagunen zirkuluak.....	19
1.3.3	Lankidetzakontratuak.....	19
1.3.4	Laguntza-batzordea .....	19
<b>1.4</b>	<b>Talde-lanaren garrantzia azaltzeko eta eraginkortasuna frogatzeko jarduerak</b> .....	20
1.4.1	Talde-lana: Bai ala ez? .....	20
1.4.2	Nire lanbiderik gogokoenak .....	21
1.4.3	Manuelen taldea .....	22
1.4.4	Lurren urdina.....	24
1.4.5	NASaren jokoa.....	25
1.4.6	Erabakia hartu behar dut.....	29
<b>1.5</b>	<b>Ikasleek modu kooperatiboan lan egin dezaten prestatzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak</b> 32	
1.5.1	Koloretako mundua .....	32
1.5.2	Lankidetzan aritzen gara... ..	32

## **1. A esku-hartze eremua: taldearen kohesioa**

Ikasketa kooperatiboari eman diogun definiziotik ondorioztatzen denez, kontzeptu horren atzean hainbat balio daude, esaterako solidaritatea, elkarrekiko laguntza, desberdintasunengatikiko errespetua... Balio horiek, ordea, ezin izango dira hazi, edo zailtasun handiz haziko dira, «gutxi landutako lurretan»: kideen arteko tentsioz eta lehiaz beteriko talde batean, pertsona baztertuak edo behar adina balorazio ez dutenak daudenean oso arraroa dirudi, lekuz kanpoko ia, elkarri laguntzeko, elkar animatzeko eta errespetatzeko eta guztiek ikasketan aurrera egin arte pozik ez egoteko lau pertsonako taldeak osa ditzaten eskatzea. Askotan, ikasgela antolatzeke modu horrek –ikasketa kooperatiboko taldeen inguruan– ez du ongi funtzionatzen, ez teknika ona ez delako, baizik eta taldea ez dagoelako inola ere kohesionatuta edo horretarako prestatuta.

Bestalde, horrela, bat-batean, aurre-abisurik gabe eta gutxienekeo prestakuntzarik eta ikasle-taldearen mentalizaziorik gabe, oso zaila da ikasketa kooperatiboa aplikatzea. Aurrera egin nahi duten ikasleen gehiengoa motibatuta dago eta gaitasun ona dute, baita autonomia-maila handiagoa ere, eta ohikoa da bakarrik lan egin nahi izatea. Gainera, pertsona askok uste dute ikasgela barruan talde kooperatiboak antolatzea korrontearen aurka joatea dela: egungo gizartea gero eta lehiakorragoa eta indibidualistagoa da, bakoitzak bereari bakarrik begiratzen dio, bere interesen arabera; batzuei, gainera, ez zaie axola besteak alde batera uztea beraiek beren helburua lortzen duten bitartean. Ezaugarri horiek dituen talde batean, hau da, talde lehiakor eta indibidualista batean, oso arrarotzat jotzen dute elkarri laguntzeko proposatzea.

Nolanahi ere, taldearen arabera, egiaztatu da ikasketa kooperatiboko taldeek ondo funtzionatzen dutela. Oro har, talde oso kohesionatuak dira, non ikasleak lagunak diren, nahiz eta batzuek besteak baino harreman estuagoa izan. Denbora luzea daramate elkarrekin eta haien artean, urteen poderioz, lotura afektibo estuak sortu dira. Ondorioz, gutxi kohesionatutako taldeetan horrela lan egiteari utzi ordez, zergatik ez ditugu haiek prestatzen, geroago hain arrarotzat jo ez dezaten? Horregatik, ildo horretan aurrera egiteko baliabide aproposak izan behar ditugu: taldearen kohesioa, baldintza beharrezko baina eznahiko gisa, talde hori modu kooperatiboan egituratzeko.

Hain zuzen ere, agerikoa dirudi, kasu gehienetan, ikasketa kooperatiboa sartu aurretik, taldea prestatu egin beharko dugula, eta, pixkanaka, lankidetzarako klima egokia sortzen joan; elkarrekiko laguntza, solidaritatea eta abar lantzen, alegia. Helburua pixkanaka talde-kontzientzia areagotzea da, guztiek senti dezatela ikasketa-komunitate txikia osatzen dutela. Azken batean, hainbat talde-dinamika eta klima hori ahalbidetuko duten bestelako jardura batzuk programatzea da helburua, talde-kontzientzia sortzeko. Talde-dinamikatzat jotzen ditugu talde jakin baten une jakin bateko premien arabera parte-hartzaileengan eragin jakin bat sortzen duten eragiketa eta elementuak: parte-hartzaileek elkar hobeto ezagutzea, modu positiboan elkarreragitea, elkarrekin lan egiteko motibatuta egotea, erabakiak adostuta hartzea, eta abar. Ikusi beharko da, hortaz, taldearen kohesioarekin loturiko zer alderdi ari den taldean kohesio hori eragozten, ondoren, identifikaturiko ahuleziak gainditzera bideraturiko jarduerak eta dinamikak programatzeko.

Dena dela, ez dugu kontrako muturrera jo behar eta ikasketa kooperatiboan hasi baino lehen taldea gehiegi prestatu nahi izan, horrela ez baitugu inoiz lankidetzan aritzeko ondo prestatuta ikusiko. Arestian aipatu dugun bezala, azpimarratu ditugun hiru esku-hartze eremuak estu lotuta daude, eta, gela osoa talde kooperatibo txikitik banatuta lan-esperientzia positiboak metatzen doan heinean beren arteko kohesioa ere areagotu egingo da, eta gero eta kohesionatuago egon, orduan eta emankorragoak izango dira haiek taldean eginiko hurrengo esperientziak.

## **Non, noiz eta nola landu taldearen kohesioa**

Helburua ez da jardun isolatu gutxi batzuk egitea. Aitzitik, taldearen eguneroko lanean aintzat hartu beharreko zerbait da, bai tutoretza-orduetan, bai eskoletan: ikasgelan egiten dugun guztiak, planteatzen dugun moduaren arabera, taldearen kohesioa hobetzen lagun dezake.

A esku-hartze eremuari dagozkion IK/KI Programak proposaturiko jarduera gehienak tutoretza-orduetan gauzatu daitezke: talde-lanaren garrantzia eta eraginkortasuna erakusteko jarduerak, elkar ezagutzea bultzatuko duten taldeko dinamikak, ikasleen arteko harremanak hobetzeko, talde osoari eragiten dioten alderdiei buruz adostutako erabakiak hartzeko, eta abar.

Taldeko jarduera eta dinamika horiek, noski, ez dira itsu-itsuan programatzen, baizik eta taldearen kohesioa aztertu eta talde jakin horrek dituen kohesio-ahuleziak identifikatu ondoren, alegia, gelako giroa, kideen arteko harremana, talde-lanari ematen zaion balioa, solidaritatea, errespetua eta abar aztertu ondoren.

Nolanahi ere, gauza ez da taldearen kohesioa taldeko tutoretza-orduetan bakarrik lantzea. Beste hainbat momentu ere erabil daitezke: gelako batzarra; goizeko agurra eta arratsaldekoa; aparteko gertaera edo gatazka batek eragindako hausnarketa-une konkretuak, eta abar.

Gainera, arlo jakin bateko gaitasunak eta edukiak lantzerako bideraturiko beste hainbat jarduera ere erabil ditzakegu; jarduera horiek planteatzeko moduaren arabera, zeharka, taldea kohesionatzeko ere balio dezakete. Adibidez, adierazpen plastikoaren arloan, haur guztiek ekarritako materialekin maskota bat eraikitzea; hizkuntzaren eta matematikaren arloan ikasleek dituzten materialak trukatu behar izatea eskatu zaien lana amaitu ahal izateko; taldearen hainbat alderdi azpimarratzea, esaterako elkarrekiko laguntza, lankidetzak, ezberdintasunen balioa; atzeritar familietatik datozen ikasleei beren jatorrizko herrialdeari edo kulturari buruz zerbait azal dezaten eskatzea, bestela bitarteko zeharkakoagoen bidez bakarrik jakin ahal izango luketen zerbait, eta abar. Horrek guztiak, zalantzarik gabe, taldea gehiago kohesionatzen lagun dezake eta gelako klima edo giroa hobetzen.

### *Taldeko ospakizunak*

Taldeko ospakizunek aparteko aipamena merezi dute gelako klimaren hobekuntzari eta taldearen kohesioari egiten dioten ekarpen handiagatik. Beste batean ere esan genuen, argi eta garbi:

Irakasleok, sarritan, gehiegi arrazionalizatzen dugu irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua eta, gure ikuspegi arrazionalistik, garrantzi gutxi ematen diegu indarketa positiboari, taldeko sariei eta ospakizunei. Argi dago ikasleek ikasi egin behar dutela, horixe baita beren lana eta beren obligazioa. Baina ez die inolako kalterik egiten, mesede baizik, egiten duten esfortzua noizean behin balioesteak eta bakoitzak helburu gisa jarritakoa eta taldean lan egiten ikasten badute zorientzeak. (Pujolàs, 2003, 123. or.).

Guztion esfortzuari esker zerbait lortzen den bakoitzean taldeko ospakizunak egitea oso garrantzitsua da: helburutzat jarritakoa lortu dutela *sentitzea*, guztiek, beren aukeren arabera, aurrera egin dutelako ikasketan, eta egiaztapen horretatik abiatuta *baloratu eta errespetatu sentitzea*; horiek ezinbesteko baldintzak dira ikasleak ikasteko konpromisoa berresteko eta lan egiteko eta talde kooperatibo bateko kide izateko gogoia berritzen joan daitezen, pixkanaka gelako talde eta ikasketa-komunitate bilakatzen joan daitezen. Era berean, ezinbesteko baldintzak dira ikasleek, *guzti-guztiek*, ikasteko gai direla sentitzeko, *batzuek*, beharrezkoa denean, besteen laguntzari esker, eta *besteek*, beren kideei ikasten laguntzeagatik pozik.

Sinistuta gaude, oro har, ikasgelan ospakizun gehiago sartu beharra dagoela (betiere, noski, ospatzeko zerbait garrantzitsua badago). Taldeko ospakizun horiek ohikoagoak dira haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan, eta ez hain ohikoak bigarren hezkuntzan. Postman-ek (2000) salatzen du erabilgarritasun ekonomikoa soilik baloratzen duen pentsamolde batek edozein eskola-jarduera dibertigarri edo edozein ospakizun hutsaltzat edo apaingarrizat hartzen dituela,

hau da, denbora galeratzat jotzen du helburu hertsiki akademikoa ez duen edozein jarduera. Ostera, taldearen arrakasta ez ospatzeak, seguruenik, ikasle askorengan ikasteko gogoia indartzeko aukera paregabea galtzea esan nahi du.

Esan berri dugun guztia eta, oro har, deskribatzen ari garen IK/KI Programako A esku-hartze eremua irudikatzeko, Down Sindromeari buruzko Iberoamerikako II. Kongresuan (Granada, apirilaren 29tik maiatzaren 2ra) aurkezturiko «DJren istorioa»ren zati bat erantsi dizuegu hemen (Breto eta Pujolàs, 2010):

(...)

*Elkar ezagutzearen garrantzia...*

Funtsezko puntu bat da horixe, elkar ezagutzea elkarrekin lan egin ahal izateko, elkar onartzeko eta bestea ulertzeko, bestearen lekuan jarri ahal izateko... IK/KI Programak proposaturiko ereduak elkarrezagutza eta taldearen kohesioa lantzeko garrantziaz hitz egiten digu. Haurrek elkarrekin lan egin ahal izan dezaten eta gustura egon daitezen, beharrezkoa da elkar ezagutzea eta gela kohesionatuta egotea, azken finean, gelan giro ona egotea. Eredu honetan bide horretatik doazen zenbait dinamika proposatuko ditugu. Gure ikasgelan batzuk egin genituen eta beste kasu batzuetan jarduerak planteatzeko unean proposaturikoetan oinarritu gara:

*Maleta<sup>1</sup>:*

Dinamika honetan oinarrituta, haurrak hiru urterekin eskolan hasten direnetik, jarduera hori egokitu egin genuen, haurrek etxetik ekartzen dutenari balioa emateko. Egunero, haurrek, modu natural eta espontaneoan, liburuak, marrazkiak, objektu pertsonalak, loreak, testuak eta abar ekartzen dituzte eskolara. Goizeko bileran, alde aurretik ezarritako denbora-tarte batean, beren ikaskideei erakusten dizkiete, zer esan nahi duten azaltzen diete, beren testuak irakurtzen dituzte, elkarri eskutitzak, marrazkiak eta abar oparitzen dizkiote. Itxuraz oso sinplea den ekintza horretan, gauza asko gertatzen dira, hainbat norabidetan. Haurrak hautematen du etxetik ekartzen dituen altxor horiek guztiak, batzuetan familiarenak, besteetan berak eginikoak, balioa dutela besteentzat, afektibotasuna dago, errespetua. Bere objektua erakusteko altxatzen denean dagoen isiltasun handi horretan antzematen du, bere ikaskideen begiradan, beren keinuetan («oso polita da», «esfortzu handia egin duzu», «lan handia egin behar izan duzu»...). Eta bestalde, besteoi, haurra eta haren ingurunea ezagutzeko elementu oso garrantzitsua jartzen digute eskura.

Guztiak maite zuten DJ eta ia goizero marrazkiak eta eskutitzak ematen zizkioten; berak «eskerrik asko» esan behar zuen ordainetan. Ulertu genuen berak ere erabat parte hartu behar zuela dinamikan eta, bestalde, berak ere ekar zitzakeela objektuak, marrazkiak edo edozer etxetik. Hortaz DJren familiari nolabaiteko konplizitatea eskatu genion (familien konplizitatea, bide batez esateko, beharrezkoa da beste haur batzuekin ere, esaterako oso lotsatiak direnean eta besteen aurrean diren bezala azaltzen ez direnean). Ikasgelara argazkiak ekartzea proposatzen diegu (katuarenak, zaldienak, beren familiarenak...) edo bestela, beste haurrentzako marrazkiak, gainerako ikaskideek bezalaxe protagonista izateko aukera izan dezaten. Horrelaxe egin genuen eta horri esker gehixeago ezagutzen dugu: etxetik kanpo egiten duena, bere maskota... eta bera ondo sentitzen da, garrantzitsu eta maitatu sentitzen da; bileran eta talde osoaren jardueretan parte har dezakeela ulertzen du. Gainerako ikaskideekiko errespetu berarekin tratatzen dute, berak esaten duena entzuten dute eta irakasleak indartu egiten du; taldeko kide da.

*Elkarrizketa<sup>2</sup>:*

Dinamika horretan oinarritu ginen Haur Hezkuntzako 3. mailako lehenengo jardueretako bat planteatzeko, elkarrezagutzan sakontzeko asmoarekin. Jarduera udako oporren ingurukoa zen;

<sup>1</sup> Ikus taldeko dinamika honen deskribapena, dokumentu honen Bigarren Zatiko 1.2.8 paragrafoan.

<sup>2</sup> Ikus taldeko dinamika honen deskribapena, dokumentu honen Bigarren Zatiko 1.2.7 paragrafoan.

haurrek beren udako esperientziak kontatzea nahi genuen, baina pentsatu genuen interesgarriagoa izango zela eta etekin handiagoa aterako geniola elkarrizketaren dinamika erabilia eginez gero. Haurrei beren oporretako lekuaren argazki bat ekartzeko eskatu genien, beren esperientziak gogora ekartzea errazteko; argazki horiek azalpen txiki batekin zetozen: lekua, bertan agertzen ziren pertsonak, zer egiten zuten... familiek idatzita. Bikoteak egin genituen ausaz, DJren kasuan hirukote bat osatu genuen elkarreragina errazteko. Bikote bakoitza osatzen zuten haurrek galderak egin behar zizkieten elkarri, beren oporrei buruz gauzak kontatu. Elkarrizketa horretatik, bakoitzak bestearen oporrei buruz nahikoa informazio lortu behar zuen eta gero ahoz azaldu behar zion gela osoari. Gainera, lagunaren argazkiarekin batera joateko testu txiki bat idatzi behar zuen.

DJk bere lehenengo hitz-esaldiekin azaldu zizkien ikaskideei argazkietako irudiak; «ura», «hotza» esan zuen eta datu horiekin eta familiak irakasleari emandako informazioarekin, ikaskideek gela osoari azaldu ahal izan zizkieten DJren oporrak. Bere kideek oporretan zer egin zuten azaldu zioten, argazkiak aurrean zituztela; DJk asko maite ditu argazkiak, eta interes handiz jarraitu zuen azalpena. Material grafiko guztiarekin *Oporretako liburua* egin genuen.

Jarduera horrekin pixka bat gehiago ezagutu genuen elkar eta, gainera, curriculumeko beste alderdi batzuk ere landu genituen, eta liburu horren ekoizpenarekin, taldearen kohesio-sentimenduan sakondu genuen.

### *Orrialde horiak<sup>3</sup>:*

Haur Hezkuntzako 3. mailan egin genituen gure «orrialde horiak». Lehenengo bileran, haur bakoitzak zertan zen oso ona, zer ateratzen zitzaion benetan ondo eta besteei zer erakuts ziezaiekeen pentsatu zuen. Haur batzuek oso ondo dakite zeintzuk diren beren indarguneak (irakurri, idatzi, margotu, jolastu...) eta gai dira introspektzio hori egiteko eta ondoren besteei azaltzeko. Baina beste batzuk ez dira gai, horixe da DJren kasua. Hori ez da dinamika egiteko eragozpena. Kasu horietan, gainerako ikaskideek laguntzen dute beren kideen bertutez hitz eginez: «oso ona da baloiarekin, margotzen...». Ahots asko entzuten dira DJren txanda iristean, guztiek dute oso argi gure protagonista aditua dela negarrez ari diren haurrak kontsolatzen. Inork ez du berak bezain ongi egiten: lehenengoa da negarrez ari den haurraren iristen, besarkatu eta laztandu egiten du, eta bere begiradarekin erantzun bat bilatzen du... «DJk oso ondo daki kontsolatzen». Guztiz ados gaude. Guztiek argi dutenean beren indargunea zein den, zertan diren onak, idatzitako hitza eta argazkia uztartzen dituen iragarki-hizkerako lan grafikoa egingo dugu. Eta amaieran, emaitza gelako liburu bat izango da berriz, eta ekoizpen kolektibo guztiak bezalaxe, egunero haur baten etxera joango da txandaka, hark bere familiarekin parteka dezan (ikastetxearen blogean ere jarriko dugu). Ekoizpen kolektibo horiek eskolako komunitatea kohesionatzen laguntzen dute gainera eta familien parte-hartzea bultzatzen. Taldeko ekoizpen horiek guztiek eragin kohesionatzailea dute.

Besteek gure indargunea bilatzen laguntzeko egoera zirrargarri horretara ez da besterik gabe iristen. Atzean bakoitzaren alderdi positiboak indartzeko eta guztiek egiten duten ahalegina – ez bakarrik lorpenak– ozenki baloratzeko eguneroko lana dago. Horren atzean, arestian aipatu dugun pedagogia positiboaren lana dago. Helduak igorritako mezu optimista horrek gelako kide guztiak kutsatuko ditu eta guztiek bereganatuko dute, beren hitzak jarrita.

(...)

### *Emozioa...*

Gurasoei beti esaten diegu gure ikasgeletan azaltzeko zailak diren gauza asko gertatzen direla. Gure eskola-unibertsitatea bizitzaz beterik dago; gelako, mailako, zikloko kideak, tutorea, beste irakasleak... guztiok gara ingurune sozial horretako kide. Guztiok batera ikasten eta disfrutatzen dugu, eta hori, bata bestearen ondoan egotea baino askoz ere gehiago da. Gure ikasgeletan bizi dugun gauzarik garrantzitsuena ezin da paperean islatu, eta nekez adieraziko da idatziz: emozioa. Jarduera bat hastera goazenean «urduri nago», «hunkituta nago» esanez

<sup>3</sup> Ikus taldeko dinamika honen deskribapena, dokumentu honen Bigarren Zatikoko 1.2.10 paragrafoan.

adierazi ohi duten emozioa eta erne jartzen dituen lanari bost zentzumenekin ekiteko. Lan kooperatiboko esperientzia honetan ikasleetako bakoitza talde bateko kide da, izaera berezia duen talde batekoa. Bertan, haur bakoitzak funtzio oso argiak dituen kargu bat du esleitura. Adinez txikiak izan arren, espezializazioaren beharra ulertzen dute, elkarren artean sortzen den interdependentzia, guztiak ondo funtziona dezan bakoitzak duen erantzukizuna... Eta sentitu egiten dute. Beren ikaskideekiko interakzioek eragindako sentimendu ugari sortzen dira; bizitzarako benetako eskola. Etsipena sentitzen dute ulertzen ez dituztenean, tristura ikaskidea gaizki dagoenean, poztasuna elkarrekin jolasten direnean, zorientasuna guztien artean gauza zail bat lortzen dutenean.

Gure geletan, antolaketa kooperatibo hori dela-eta, haurren arteko interakzioak handiak dira: guztiak hezitzaileak, baina ez nahitaez errazak edo erosoak. Batzuek ahantzezinak dira, hunkitu egiten duten keinuak eta hitzak: «Etorri, eseri hemen gurekin», «Zintzo portatu, bestela ez duzu ezer ulertuko», «Lagunduko dizut?», «Zenbat maite dudan»... Guztiak aditzera ematen digute txikiok besteengan pentsatzeko gai direla, bai eta haiekin arduratzeko, hausnartzeko eta erantzukizunak beren gain hartzeko ere.

DJren jarreran gertatutako aldaketak, pertsona gisa egin zuen aurrerapena, maitasunaren, sentimenduen munduaren eta emozioaren emaitza izan ziren batik bat.

*Ni ere Criquitaren gelako eta taldeko kide naiz...*

PAK proiektuaren eredu teoriko-praktikoak zein IK/KI Programak azaltzen diguten bezalaxe, oso garrantzitsua da taldearen eta gelaren kohesioa. Ildo horretan lan egiten dugu urtero Haur Hezkuntzan. Lehenengo ikasturtean, hiru urtekoan, izena jarri genion gelari, orduetik Criquit gela gara. Gela honetara iritsi zen DJ, ez zen edozein gelara iritsi.

Laster konturatu ginen DJrentzat oso garrantzitsua zela gelako kide izatea, besteekin egotea eta maitatua sentitzea. Goizeko edo arratsaldeko amaierako bileran, agur esateko unean ahozko hausnarketa egiten dugu, zorionak eskatzen ditugu (irakasleak eta hurrek) asko ahalegindu den ikaskideren batentzat, edo guretzat eskatzen dugu, edo taldearentzat, lanak azkar amaitzea lortzeagatik, edo gela osoarentzat. Eta besarkadekin, txalo handi eta txikiekin, musu-kateekin, esaldiekin eta abarrekin ospatuko dugu. Une askotan, lan bat egitea lortu izanagatik hain da handia emozioa gela osoarentzat esku guztiak elkartu eta horrela esan ohi dugula: «Taldea bat gara, lortu dugu!». Guztiok atsegin dugu besteok gu zorientzea gauzak ongi egiten ditugunean, noski. DJ ez da salbuespen bat. Gelako kide izateagatik pertenezia-sentimendua indartzeko gure arrakastengatik egiten genituen etengabeko ospakizunak haien jarrerak moldatzeko gai ziren, eta etekin handia ateratzen genion horri.

(...)

### **Taldearen kohesio-mailaren azterketaren dimentsioak**

IK/KI Programan bost dimentsio hartu dira aintzat, guztiak ere taldearen kohesio deitu dugunarekin loturikoak. Honako hauek dira:

1. Gelako ikasle guztien parte-hartzea eta erabakiak adostasunez hartzea.
2. Elkarrezagutza eta harreman positiboak eta laguntasunekoak gelako ikasleen artean.
3. Elkarrezagutza eta harreman positiboak eta laguntasunekoak ikasle arrunten eta urritasunen bat edo jatorri kultural ezberdina dutenen artean.
4. Taldean lan egiteko gogoia eta talde-lana egungo gizarterako gauza garrantzitsutzat eta lan indibiduala baino eraginkorragotzat hartzea.
5. Solidario izateko gogoia, elkarrekiko laguntza, desberdintasunekiko errespetua eta bizikidetzeta.

Dimentsio horietako bakoitzarentzat programak ikasleekin dimentsio horiek lantzeko erabilgarriak izan daitezkeen jardueren sorta eskaintzen die irakasleei (hausnarketa-jarduerak eta talde-dinamikak); hasteko, noski, talde jakin baten kohesioari buruz prestakuntza- eta

aholkularitza-prozesuaren hasieran eginiko hausnarketan premiazkoagotzat jotako alderdiak landuko dira, gela jakin baten ahulgunetzat hartzen direnak.

Hurrengo azpiataletan IK/KI Programak dimentsio horietako bakoitzarentzat proposatzen dituen jardueren eta dinamiken deskribapena dago.

## **1.1 Erabakiak hartzeko prozesuan parte-hartzea, eztabaida eta adostasuna bultzatzeko talde-dinamikak**

### **1.1.1 Talde Nominala<sup>4</sup>**

Dinamika hau –Maria Luisa Fabrak (1992) proposatzen duen bezalaxe– oso erabilgarria da ikasleek gai edo arazo jakin bati buruz dituzten ikuspegiei edo ideiei buruz informazioa lortzeko, modu egituratuan gainera; ondorioz, lotsatienean parte-hartzea errazten du eta ausartenen gehiegizko protagonismoa galarazten du. Fabra irakaslearen esanetan, teknika bereziki erabilgarria da ikasgela batek taldeko arauari, diziplinari, jarduerari eta abarri buruz erabaki adostuak hartu behar dituenean. Baina, bestalde, erabilgarria izan daiteke, halaber, irakasleak, gaia amaitzean, ikasleek lortutako edo garrantzitsuentzat jotako jakintzak ezagutzeko.

Honela aplikatuko dugu:

- Ezer baino lehen, irakasleak edo bideratzaile-lana egiten duenak (ikasle bat izan daiteke) teknika hau aplikatuta lortu nahi den helburua zein den azalduko du, eta zer arazok edo gaik behar duen une horretan arreta guztia.
- Bost bat minutuz, gutxi gorabehera, parte-hartzaile bakoitzak, modu indibidualean, jorratuko duten gaiari edo arazoari buruz burura etortzen zaizkion informazioak, proposamenak edo iradokizunak idatziko ditu.
- Bideratzaileak idatzi dituzten ideiak banaka ozenki esateko eskatuko dio parte-hartzaile bakoitzari eta arbelean idatziko ditu. Norbaitek parte hartu nahi ez badu, «paso» egin dezake eta norbaitek ideia bat baino gehiago badu bigarrena esateko lehenengo txanda osatu arte itxaron beharko du, betiere lehenengo txanda horretan inork ez badu ideia bera aipatu. Argi dago, hortaz, garrantzitsuena ideiak direla, eta ez nork esan dituen.
- Ideia guztiak idatzi direnean, beharrezko txandak osatu ostean, teknika dinamizatzen ari denak guztia argi geratu den galdetuko die denei. Ekarpenean baten inguruan zalantzarik badago, horixe da ideia adierazi duenari beharrezko azalpenak emateko eskatzeko unea. Azalpenak baino ez dira, ez jasotako ideiekiko objektzioak edo kritikak.
- Amaieran, ideia guztiak arbelean jasota geratuko dira, ordena alfabetikoari jarraituta: emandako lehenengo ideia A izango da, bigarrena B, hirugarrena C, eta abar.
- Hurrengo urratsean parte-hartzaile bakoitzak azalduko ideiei ordena hierarkikoa emango die; bere ustez garrantzitsuena denari puntu 1 emango dio, 2 puntu bigarren garrantzitsuenari, 3 hirugarrenari eta horrela, azalduko ideia guztiak puntuatu arte (hamabi ideia bazeuden, azkenak 12 puntu izango ditu).
- Jarraian, ideia bakoitzaren aldamenean, parte-hartzaile bakoitzak eman dion puntuazioa idatziko da, eta, bukaeran, ideia bakoitzaren puntuak batuko dira. Horrela, gela guztiaren arabera balorazio onena duten ideiak zeintzuk diren jakingo da: guztien artean puntuazio txikiena lortu dutenak, alegia.
- Azkenik, lortutako emaitzak komentatu, eztabaidatu edo laburtuko dituzte.

---

<sup>4</sup> Fabra (1992).



Taldea oso handia bada, eta hainbat azpitaldetan banatuta dagoela aintzat hartuta, teknika horren aplikazioa arinago egiteko prozedura bera jarrai dezakegu, baina banakako lana talde-lanarekin ordezkaturata, jorratzen ari diren gaiari edo arazoari buruzko ideiak pentsatzeko eta idazteko orduan, eta haiek puntuatzeko orduan.

### 1.1.2 Bi zutabeak<sup>5</sup>

Dinamika hori oso egokia da, guztiok bat etorrita, arazoarentzat edo gaiarentzat konponbide onena zein den erabakitzeko hainbat aukeraren artean.

Bi zutabeen dinamika (Fabra, 1992) prozedura oso sinplea da eta adostasuna errazten du talde bateko kideek erabaki bat hartu behar dutenean edo arazo bat konpondu behar dutenean eta hainbat aukera dituztenean, zein hartu ondo jakin gabe. Dinamika hau Talde Nominalaren dinamikaren primerako osagarria da: dinamika honen azken fasean erabil daiteke, taldeak, ahal duen heinean, balorazio onena duen aukera arrakasta-aukera gehien eskaintzen duena dela ziurtatzeko.

Bi zutabeen dinamika aukerak baloratzeko beste modu bat da, elkarrizketa eta adostasuna errazten dituen eta norbaitek protagonismo gehiegi izatea eta bere iritzia besteen iritzia gainera jartzea galarazten duena. Horretarako, bideratzaileak parte-hartzaileek esandako proposamenak idatziko ditu, baina ez proposamena egin duenaren izena. Guztiak proposa ditzakete aukerak, eta berririk ematen ez denean, bakoitzaren balorazioa egiteari ekingo diote.

Honako prozesu hau jarraituko dugu:

- Proposamenak edo aukerak arbelaren mutur batean idatziko ditugu, ordena alfabetikoan (A lehenengoarentzat, B bigarrenarentzat, C hirugarrenarentzat, eta abar).
- Arbelaren gainerako zatia bi zatitan banatuko dugu, marra bertikal batekin. Alde batean «Alderdi positiboak» idatziko dugu eta bestean «Nahi ez ditugun ondorioak» (ez dugu «alderdi negatiboak» idatziko proposatu duenak etsi gabe defenda dezan saihesteko, helburua gelak proposamena nork egin duen ahaztea baita eta interesa haien edukian jartzea, ez egileengan (13. irudia).
- Jarraian, A proposamena irakurriko dugu eta parte-hartzaile guztiei eskatuko diegu elkarrekin lan egin dezatela haiengan ikusten dituzten alderdi positiboak azaltzeko (arazoaren zer alderdi konpontzen dituzten, zer abantaila dituzten, eta abar), eta arbelean idazten joango dira, dagokien zutabeen.
- Ondoren, proposamen berari buruz «Nahi ez ditugun ondorioak» pentsatzeko eta azaltzeko eskatuko diegu parte-hartzaileei (zer gerta daiteke hau eginez gero, zer bilakaera gertatuko da proposamena gauzatu gero, eta abar) eta horiek ere dagokien zutabeen idatziko ditugu.
- Jarraian, gauza bera egingo dugu gainerako proposamenekin: B, C, etab.
- Azkenik, proposamen guztiei buruz zutabe bakoitzean idatzitakoa aztertzeko eskatuko diegu taldeari. Hortik aurrera, egokiena zein den balora daiteke (arazoa gainditzea edo ezarritako helburua berme handienekin eta kostu txikienekin lortzea ahalbidetuko diguna). Ohikoa denez, aukera guztien ebaluazio-irizpideak ez dira kuantitatiboak izango, kualitatiboak baizik: batzuetan, nahi ez dugun ondorio bakar batek aukera baliogabetu dezake.

Aukera	Alderdi positiboak	Nahi ez ditugun ondorioak
A).		

<sup>5</sup> Fabra (1992).

B).		
C).		
Eta abar.		

### 13. irudia

Dinamika honek, elkarriketa bideratzeaz eta erabakiak hartzea errazteaz gain, beste abantaila batzuk ditu: ikaslearen arrazoiketa logikoa, sintesi-gaitasuna eta hitzezko adierazpena hobetzen ditu, eta elkarrekin lan egitera eta helburu komunei premia indibidualei baino garrantzi handiagoa ematera ohitzera behartzen ditu.

Bestalde, Talde Nominalaren dinamikan bezalaxe, banakako lana talde-lanarekin ordeztu daiteke: talde kooperatiboek pentsatzen eta eskaintzen dituzte aukerak, eta haiek banan-banan baloratu, eta ez ikasleak bakarka<sup>6</sup>.

#### 1.1.3 Elur-bola<sup>7</sup>

Ikasle bakoitzak bakarka egingo du landu nahiko lituzkeen hiru gai biltzen dituen zerrenda, non gauden eta talde bakoitzean egiten ari garen lanaren helburua aintzat hartuta.

Jarraian hainbat talde egingo ditugu, eta talde bakoitzak idazkari bat aukeratuko du, taldeko kide guztien ekarpenak bilduko dituena. Gure gaiak txandaka irakurriko ditugu eta, aldi berean, errepikatuta dauden ekarpenak kenduko ditugu. Proposaturiko gairen batean zalantzarik badago, parte hartu duten pertsoneri eskatuko diegu esan nahi izan dutena zehazteko. Akordio batera iritsiz gero, bat kenduko dugu, eta, bestela, bi aukerak utziko ditugu.

Talde bakoitzaren ekarpen guztiak jaso ondoren, gela osoaren aurrean azalduko ditugu eta txandaka, talde batek proposamen guztiak egin ditzan saihesteko, zerrenda bat egingo dugu guztion artean. Guztiok ikusteko moduko tokian idatziko ditugu emaitzak.

Proposamenak sailkatzeko, kategoriatan banatzeko eta taldekatzeko unea da, hortaz, beste batzuen barruan sartutako proposamenak kentzen joango gara. Adibidez, zerrendan izarrak, ilargia, unibertsoa, Jupiter eta tankerako proposamenak agertzen badira, unibertso hitzarekin labur ditzakegu; edo, proposaturiko gaiak gosea, hirugarren mundua, solidaritatea, laguntza, GKEak eta abar badira, agian GKE hitzarekin taldeka ditzakegu, hark beste proposamen guztiak biltzen baititu.

Geratzen zaigun zerrendarekin, aukeratuko dugun gaiari buruz eztabaidatuko dugu, arrazoibideak eskainita eta hiru irizpidetatik abiatuta: garrantzia, urgentzia eta egiteko aukera.

Gela osoko edozein kidek gai bakar bat defendatu ahalko du. Arrazoibide horien bitartez, gela osoko kideei gaietako bakar baten alde egitea eskatuko diegu, bakar bat aukeratu arte, behar izanez gero, gehiengoagatik.

<sup>6</sup> Ikus dinamika honen egokitzapen bat 1.4.1: «Taldea-lana bai ala ez?» paragrafoan deskribaturiko jardueran.

<sup>7</sup> Joan Traver-ek emana (PAK proiektua: Zonako Ikerketa Taldea, Castelló-Valentzia) eta García Lópezek eta beste batzuek egokitua (2002).

#### 1.1.4 Iritzi kontrajarriak<sup>8</sup>

Taldeko lan-teknika honek bi ikuspuntu kontrajarri edo gehiago elkartzen diren gizarte-errealitate gatazkatsuen azterketara hurbiltzeko aukera ematen digu, eztabaidarako eta jendearen aurrean arrazoibideak emateko oinarritzko trebeziak edo estrategiak irakasten dizkigu, ulermena eta tolerantzia bultzatuta, baita aurreiritziak gainditzea ere.

Laburbilduta, honako hauek dira teknikaren faseak:

- Prestakuntza. Gaia aukeratu ondoren, ikasgela hiru lan-taldetan banatuko da: «A» jarreretako baten alde, «B» beste jarreraren alde eta «C» moderatzailea eta ondorioak. Ondoren, materialen eta informazio-euskarrien aukeraketa egingo dugu eta denbora-tarte bat eskainiko diogu eztabaida prestatzeari talde bakoitza hiru azpitaldetan banatuta; eztabaidan, azpitalde bakoitzeko ordezkariak parte hartuko dute.

A azpitaldeek A iritziaren aldeko argudioak bilatuko dituzte eta kontrako iritzia (B) babesten duten argudioei baliotasuna kentzen dioten beste batzuk bilatzen saiatuko dira; informazioa eta materialak eztabaidarako argudioekin bat antolatuko dituzte. Gauza bera egingo dute B azpitaldekoek A azpitaldearekin. Bitartean, C azpitaldeek eztabaidak jarraitu beharreko bidea prestatuko dute bildutako informazio-materialarekin eta kontrajarritako jarrera bakoitzaren aldeko eta aurkako argudioak bilatuko dituzte, eztabaida formulatzeko galderak aukeratu eta planteatuko dituzte, gaiaren sarrera eta parte-hartzeen ordena prestatuko dituzte, baita amaierako fasea ere, azken iritzi laburtuekin.

- Eztabaidaren garapena. Aldez aurretik, azpitaldeen ordezkariak beren jarrera bera dutenekin bilduko dira beren estrategia koordinatzeko.

Eztabaida, ahal dela, ikastetxeko beste ikasle-talde batzuei edo beste hezkuntza komunitate batzuei irekita egongo da. Ordu erdi eta ordubete bitarte iraungo du.

- Ondorioak ateratzea. Talde bakoitzak, jasotako eta landutako informazioarekin, beren ondorioak laburbiltzen dituen hormako aldizkaria egin dezake, ondoren hura aurkezteko.

Teknika honen proposamen didaktikoa, baita beste kooperazioko teknika batzuen ere, hemen dituzue ikusgai: R. García, J.A. Traver eta beste batzuk (2002).

---

<sup>8</sup> Joan Traver-ek emana (PAK proiektua: Zonako Ikerketa Taldea, Castelló-Valentzia) eta García Lópezek eta beste batzuek egokitua (2002).

## **1.2 Taldearen barruan elkarreragina, elkar ezagutzea eta distentsioa bultzatzeko zenbait taldeko dinamika**

### **1.2.1 Pilota<sup>9</sup>**

Ikasturtearen lehenengo egunetan parte-hartzaileek beren ikaskide guztien izenak ikasteko jolas bat da.

Zirkulu handi bat marraztuko dugu gelako lurrean edo jolastokian edo areto handi batean. Ikasle bat jarriko da zirkuluaren barruan, eskuetan pilota bat duela. Bere izena esango du ozenki eta, jarraian, taldeko kide batena esango du eta hari pasako dio pilota; ondoren, zirkuluaren barruan eseriko da («Ana izena dut eta Juani pasako diot pilota»). Ez badaki inoren izena, ezin diote lagundu eta izenak esaten joan beharko du, baten batekin asmatu arte. Orain pilota duena zirkuluaren barruan jarriko da zutik eta gauza bera egingo du: bere izena errepikatuko du eta beste gelakide batena esango du pilota hari pasatura, jarraian zirkuluaren barruan eseriko da («Juan izena dut eta .....(r)i pasako diot pilota»). Eragiketa hori parte-hartzaile guztiak zirkuluaren barruan eserita dauden arte errepikatuko da.

Irakasleak dinamika iraungo duen denbora kontrolatuko du, lehenengo ikasleak bere izena esaten duenetik azkena zirkuluaren barruan esertzen den arte. Dinamika segidako egunetan errepikatu daiteke eta helburua, noski, gero eta denbora gutxiago behar izatea da, hori izango baita beren gelakideen izenak hobe ezagutzen dituzten seinale.

*Aldaera:*

Parte-hartzaileek elkarren izenak ondo ezagutzen dituztenean, dinamika egiten jarrai dezakegu talde barruan giro ona sortzeko. Kasu honetan, parte-hartzaile batek pilota beste bati pasatzen dionean zirkuluan eseri baino lehen, pilota pasako dion kidearen izenaz gain haren ezaugarri bat esango du: «Juan izena dut eta Anari pasako diot pilota, beti laguntzeko prest dagoen pertsona delako».

### **1.2.2 Izenen katea<sup>10</sup>**

Inguruan ditugun pertsonen izena ezagutzea garrantzitsua da. Beste pertsona batekiko errespetuaren lehenengo seinalea haren izena esatea da. Izena da pertsonaren lehenengo nortasun- eta balorazio-zeinua. Hori dela-eta, dinamika hau ikasturte hasierako lehenengo saioan egin behar da. Jokoa elkar ezagutzen ez duten ikasleaz osaturiko taldeetan bakarrik planteatu behar dugu.

Jardueraren helburua ikasleek beren ikaskideen izenak memorizatzea da, jolas moduan. Garrantzitsua da ikasleak nola deitzea nahi duen esatea, aurkezpenean.

Irakasleak bere burua aurkeztu ondoren, ikasleari bere izena esan dezan eskatuko dio, jarraian, hurrengoak berea eta aurreko ikaskidearena esan beharko ditu, eta horrela, bakoitzak, ozenki, bere izena eta aurreko kide guztiena esan beharko du. Dinamika ikasleek beren kide guztien izena dakitela ziurtatzen dugunean amaituko da.

---


<sup>9</sup> [www.lauracandler.com](http://www.lauracandler.com) webgunetik egokitua.

<sup>10</sup> Coral Baz-ek aurkeztua (PAK proiektua: Zonako Ikerketa Taldea, Andaluzia).

### 1.2.3 Aurpegia marraztea izenaren hizkiekin<sup>11</sup>

Ikasturteko lehenengo saioan egin beharreko jarduera. Jardueraren helburua gelako ikasleek elkar ezagutzea da.

Ikasle bakoitzak bere aurpegia marraztu beharko du bere izenaren hizkietatik abiatuta (ikus adibide bat 3. irudian). Aurpegi horiek jaso egingo dira, gero nahastu eta ikasleen artean banatuko dira ausaz. Jarraian, pertsona bakoitzak egokitu zaion aurpegiari dagokion pertsona bilatu beharko du. Azkenik, gelako ikasle guztien aurpegiak jar daitezke gelako kortxoan. Dinamika hau oso interesgarria da, ikasleak bere burua irudikatu behar duelako besteek identifika dezaten. Horrela, jarduerak ikaslearen garapen pertsonalaren funtsezko bi alderdi azpimarratzen ditu: bere buruaz duen irudia eta jarduerak eskatzen duen sormen-jolasa. Hori guztia izenak jolasean ikasteko.



Manuel

### 1.2.4 Asmakizunen, bertsoen edo 3. irudia ik<sup>12</sup>

Jarduera ikasturtearen lehenengo egunetan egiten da. Talde-dinamika honen helburua ikasleek elkar ezagutzea da, harremanak ezartzea eta elkarren artean konfiantza hartzen joatea.

Saioa hasi ondoren, ikasle bakoitzari asmakizunaren, bertsoaren edo esaeraren zati bat emango zaio. Zati-kopurua bitik laurakoa izango da (ikus adibide batzuk 14 eta 15. irudietan). Jardueraren helburua ikasgelan testua osatzeko zatia edo zatiak dituzten kideak bilatzea da. Elkarrekin eseriko dira, beren buruez hitz egingo dute eta elkar ezagutzera bideraturiko galderak egingo dituzte. Azkenik, talde bakoitzak bere testu osoa irakurriko du eta elkar aurkeztuko dute, beren izenari, adinari, zaletasunei eta abarri buruzko datuak emanez.

Jarduera bideratzen duen irakasleak konfiantza eta segurantzaz emango die, parte-hartzea bultzatuko du eta zailtasunak dituztenei lagundu egingo die.

ESAERAK	
Zozoak beleari...	... ipurbeltz
Hamar ardi dituenak...	... hogeitahi
Kalean uso...	... etxean otso
Abenduko eguna...	... argitu orduko iluna
Gezurak...	... buztana labur
Zer ikusi...	... hura ikasi
Gogoko tokian...	... aldaparik ez

14. irudia

<sup>11</sup> Coral Baz-ek aurkeztua (PAK proiektua: Zonako Ikerketa Taldea, Andaluzia).

<sup>12</sup> Coral Baz-ek aurkeztua (PAK proiektua: Zonako Ikerketa Taldea, Andaluzia).

POEMAK	
Bazen Mutrikun triku bat eta hondartzan izan zuen istripu bat. Sartu zitzaion arantza sudur zuloan gorantza. Haren mediku izan zen bisigu bat.	Txolarrea mokoka gerezian: Mina daukat eztarrian.
Oinetakoak lotu eta askatu aritu da haur bakartia arratsalde osoan, isilik. Zaintzen duen neska irribarre egin dio, harriturik.	Atea jo dute; nor ote? Haurrak bere lanari utzi dio. Atean amaren aurpegia agertu da. Haurrak lanari ekin dio berriro; Oraingoan, bihotzeko korapiloa askatu du.

15. irudia

### 1.2.5 Armiarma-sarea<sup>13</sup>

Jarduera ikasgelan edo jolastokian egin daiteke. Ikasle guztiak korroan jarriko dira. Irakasleak artilezko haril bat edo listari-haril bat izango du eskuetan eta aurkezten lehena izango da; bere izena esango du eta bere izaerari buruzko alderdiren bat edo zaletasunen bat aipatuko du. Ondoren, harilaren muturrari helduta, ikasle bati botako dio, eta hark ere bere burua aurkeztuko du, haria helduta duela, eta harila jaurtiko du hark ere. Amaieran, armiarma-sare bat sortuko dute eta irakasleak aipatuko du guztiok garela garrantzitsuak hari eusteko eta gutako norbaitek kale egiten badu eta haria askatzen badu guztia desegingo dela. Talde bat gara eta guzti-guztion lana da garrantzitsua.

### 1.2.6 Silueta<sup>14</sup>

Haurrak lau edo bost pertsonako talde txikitik bilduko ditugu. Paper jarraitua erabiliko dugu eta txandaka, ikasleak paper horren gainean etzango dira kide batek beren silueta marraz dezan. Ondoren, siluetak horman zintzilikatuko dituzte zelo-papera edo txintxetak erabilia, ikasgela inguratuz edo korridore batean. Ikasle guztiek gauza polit edo atseginen bat idatziko dute beren kideetako bakoitzaren gainean. Kide guztiak ez baditugu sakon ezagutzen, beti azpimarra dezakegu bereziki atsegina egiten zaigun ezaugarri fisiko bat edo izaerakoa.

*Aldaera:*

Nahikoa espazio ez badugu, moldaketa bat egin dezakegu gelan. Siluetak erabili beharrean DIN A-3 tamainako paper bat banatuko zaio ikasle bakoitzari, bertan bere izena idatz dezan eta identifikatu egingo duten marrazki txikiak egin ditzan. Paperak paretan jarriko ditugu eta ikasle guztiek idatziko dute bertan.

Dinamika honen helburua parte-hartzaile bakoitzaren autoestimu indibidualaren eta taldearen autoestimua gainean jardutea da, kohesioa eta kide guztiak taldearen barruan ondo senti daitezela bilatuta.

<sup>13</sup> Escorialeko Gredos San Diego ikastetxeko Ana Belén Sánchezek emandako dinamika, UCETAMek eta Alcalá de Henareseko Unibertsitateak antolaturiko Ikasketa Kooperatiboko Unibertsitate Aditu Ikastaroan (2006-2007 ikasturtea).

<sup>14</sup> Escorialeko Gredos San Diego ikastetxeko Ana Belén Sánchezek emandako dinamika, UCETAMek eta Alcalá de Henareseko Unibertsitateak antolaturiko Ikasketa Kooperatiboko Unibertsitate Aditu Ikastaroan (2006-2007 ikasturtea).

### 1.2.7 Elkarrizketa<sup>15</sup>

Parte-hartzaile bakoitzak zenbaki bat dauka. Poltsa batetik zenbakiak aterako dira ausaz, binaka, taldea bikotetan banatuta gera dadin, eta beharrezkoa izanez gero, hiruko talde txiki batekin.

Dinamika honen lehenengo fasean bikote bakoitzeko kideek elkar elkarrizketatuko dute beren trebeziei, gaitasunei eta akatsei buruz alde aurretik erabaki duten galdetegi txiki batetik abiatua. Bigarren fasean, parte-hartzaile bakoitzak bere kidearen oinarrizko ezaugarriak laburbiltzen dituen esaldi bat idatzi behar du, elkarri adieraziko eta zuzenduko diote, egoki baderitzote. Azkenik, hirugarren fasean, bakoitzak bere elkarrizketakidea nolakoa den adieraziko dio talde osoari.

Dinamika hori behin baino gehiagotan egin daiteke, elkarrizketan erantzun beharreko galderen izaera aldatuta: dinamikaren ondorengo aplikazioetan gero eta galdera sakonagoak edo pertsonalagoak planteatu daitezke.

### 1.2.8 Maleta<sup>16</sup>

Egun batean, irakaslea maleta itxura duen kutxa batekin etorriko da gelara; maleta apainduta edo pertsonalizatuta egongo da eta irakaslearen izaera ordezkatzeko duen objektu-sorta bat izango du barruan (hiru edo lau, ezarritakoaren arabera): zaletasunak, trebeziak, akatsak, maniak, eta abar. Haiek maletatik ateratzen joango da eta ikasgela osoari erakutsiko dizkio, bakoitzak irudikatu nahi duena azalduta: «Tableta honek esan nahi du txokolatea oso gogoko dudala, eta, oro har, gozoki guztiak».

Jarraian, ikasle bakoitzak berak esandakoan horixe bera egin beharko duela azalduko die. Maleta objektuz beteta daramaten egunean, bere kideei erakutsiko dizkie eta azalduko die zer esan nahi duen bakoitzak.

*Aldaera:*

Maletan objektuak ekar ditzakete, baina baita argazkiak, idazkiak, poesiak edo bereziki maite dituzten abestien letrak ere. Material horrekin guztiarekin taldearen «aurkezpen-liburu» antzeko bat egin daiteke eta familia batetik bestera eramango dute taldeko kide bakoitzaren senideek ere hobeto ezagut ditzaten semearen edo alabaren ikaskideak.

### 1.2.9 Itua eta diana<sup>17</sup>


Ikasleak oinarri-taldetan daude banatuta. Dinamika hau taldearen lehenengo lansaietan egin daiteke, nolakoak diren azaltzeko eta elkar hobeto ezagutzeko.

Kartoi mehe handi batean hainbat zirkulu zentrokide marraztuko ditugu (itua). Zirkulu kopurua bakoitzak besteen aurrean azaldu nahi duen bizitza pertsonalari eta izaerari buruzko alderdien adinakoa izango da; izenetik hasita gehien gustatzen zaien ikasgaira arte, beren zaletasun maiteena eta mania nabarmenena, beren ezaugarriarik onena eta akatsik okerrena, eta abar. Ondoren, zirkuluak oinarri-taldeen kide-kopuruak adina zatitan banatuko ditugu; lau edo bost, alegia (16. irudia).

<sup>15</sup> [www.cooperative.learning.com](http://www.cooperative.learning.com) webgunetik egokitua

<sup>16</sup> Spencer Kagan (1999) lanetik egokitua

<sup>17</sup> [www.lauracandler.com](http://www.lauracandler.com) webgunetik egokitua



16. irudia

Erdiko zirkuluaren lau edo bost zatietako batean (diana), bakoitzak bere izena idatziko du; jarraian datorren zirkuluaren zatian, beren ezaugarriarik onena eta akatsik okerreana; hurrengoan, beren zaletasun nagusia eta mania nagusia, eta abar.

Amaieran, idatzi dutena aztertuko dute eta partekatzen dituzten alderdien inguruan ados jarriko dira; hortik aurrera, taldea identifikatzen duen izena bilatuko dute.

### 1.2.10 Orrialde horiak<sup>18</sup>

Telefono-enpresaren Orrialde Horietan zerbitzuak ematen dituzten pertsona eta enpresen zerrendak aurkitu ohi ditugu: jatetxeak, garraiolariak, inprentak, altzari-dendak eta abar. Dinamika honen helburua ikasgelako Orrialde Horiak egitea da, non ikasle bakoitzak bere kideei erakuts diezaiekeen zerbaiti buruzko iragarkia jarriko duen. Abestiak, jolasak eta antzerakoak erabil daitezke prozedurak edo ikaskuntzak barnerratzeko.

Beren «iragarkiaren» edukia erabaki ostean, ikasle bakoitzak honako datu hauek jarri beharko ditu: eskaintzen duen zerbitzuaren izena, zerbitzu horren deskribapena, marrazki edo ilustrazio txiki bat eta zerbitzua eskaintzen duen ikaslearen izena.

Iragarki txiki horiek alfabetikoki ordenatuta, ikasgelako zerbitzu-gida antzeko bat egingo da. Irakasleek, noizean behin, ikasleetako batek gidan eskaintzen den zerbitzuetako bat eskatzeko tarte bat jartzea erabaki dezakete.

Orrialde Horiak «gelako liburu» gisa koadernatuko ditugu eta ikasleen familia guztien eskuetatik igaro daitezke, guraso guztiek eta gainerako senideek hobeto ezagut ditzaten beren seme-alaben ikaskideak, haur bakoitzaren ezaugarriak, eta abar.

<sup>18</sup> Spencer Kagan (1999) lanetik egokitua



### 1.2.11 Ondo ezagutzen dugu elkar<sup>19</sup>

Hasieran, jarduera bakarka egingo dugu eta ondoren, talde handian. Jardueraren helburua ikasleek elkar ezagutzea bultzatzea da. Taldeak ondo funtzionatzea, hein handi batean, ikasleek elkar hobeto ezagutzearen mende egongo da.

Ikasle bakoitzari 17. irudiko inprimakia emango zaio eta bakoitzak, bakarka, bertako datuak beteko ditu. Bete ondoren, inprimaki guztiak jaso eta ausaz banatuko ditugu. Ondoren, ikasle bakoitzak egokitu zaion kidea aurkeztu beharko du besteen aurrean, baina nor den esan gabe, besteek irakurritako fitxaren egilea identifika dezaten.

TALDEAN AURKEZPENA EGITEKO
..... izena dut
eta ..... deitzea gustatzen zait.
..... urte ditut.
Nire bertute nagusia da .....
Nire akats nagusia da.....
Gainerakoengandik gehien gustatzen zaidana da.....
Gainerakoengandik gutxien gustatzen zaidana da.....
Nire ustez, ondo moldatzen naiz .....
Nire ustez, ez naiz ondo moldatzen .....
Nire zaletasun nagusia da .....
..... (lanbidea) izatea gustatuko litzaidake.

### 1.2.12 Postontzia<sup>20</sup>

17. irudia

Lagun ikusezinaren dinamikan bezalaxe, ikasle bakoitzak ikaskideren baten izena daraman papertxo bat aterako du poltsa batetik. Kasualitatez, bere izena ateratzen badu, poltsan jarriko du berriz eta beste bat aterako du.

Jarraian, mezu bat idatziko du, eskutitz moduan, irakasleak alde zuzenetik ezarritako gidoi bat jarraituta; bertan, hartzailaren ezaugarriak deskribatuko ditu, baita, eskutitzaren egilearen arabera, aldatu beharko lukeen alderdiren bat ere. Eskutitza ez da egilearen izenarekin sinatuta joango, baizik eta haren deskribapen txiki batekin. Ondoren, eskutitza gelako bazter batean bakoitzak bere izenarekin duen postontzian botako du.

Taldean, bakoitzak jaso duen eskutitza irakurriko du eta besteek, oraindik irakurtzen ez dakielako beharrezkoa izanez gero, lagundu egingo diote. Ondoren, guztion artean, eskutitzaren egilea nor den asmatzen saiatuko dira egileak utzi dituen arrastoen bitartez, hartzailak eskerrak eman diezazkion eskutitza bidaltzeagatik.

<sup>19</sup> Coral Baz-ek aurkeztua (PAK proiektua: Zonako Ikerketa Taldea, Andaluzia).

<sup>20</sup> Cervereko Les Savines ikastetxeak emandako dinamika (La Serraga, Lleida).

### 1.2.13 Nor da nor?<sup>21</sup>

Dinamika honen helburua da, taldearekiko duen jarreraren arabera, ikaskidea identifikatzea, irakaslearen laguntzarekin.

Helburua taldeko ikasle bakoitzak taldeari eta gelari buruz pentsatzen duenaren eta bere jarreraren inguruko esaldi osatugabeen fitxa bat egitea da. Ikasle bakoitzari bere jarrerei, portaerari, gelari zein taldeari buruz pentsatzeko moduari eta abarri buruzko esaldi osatugabeen fitxak pasako zaizkio (ikus 18. fitxa). Irakasleak fitxa osatuak jasoko ditu eta bakoitzari zenbaki bat emango dio. Ondoren, fitxa bat banatuko dio ikasle bakoitzari, eta hark fitxaren egilea nor den asmatu beharko du fitxako esaldiak oinarri hartuta; gero, haren izena idatziko du dagokion lekuan. Irakasleak esleitutako zenbakiarekin bat datorren egiaztatuko du. Azkenik, talde handian hausnartuko dute dinamikari buruz.

NOR DA NOR?		Zenbakia:
1.	Talde berri batera sartzen naizenean honela sentitzen naiz:	
2.	Taldea lanean hasten denean nik...	
3.	Beste pertsona batzuek lehenengo aldiz ezagutzen nautenean, pertsona horiek...	
4.	Talde berri batean nagoenean, ondo sentitzen naiz baldin eta...	
5.	Jendea isilik geratzen denean ni...	
6.	Norbaitek asko hitz egiten duenean nik...	
7.	Talde batean honako gauza hauek gertatzearen beldur izaten naiz:	
8.	Norbaitek eraso egiten didanean, nik...	
9.	Errazago mintzen naute okasio hauetan:	
10.	Ondo ezagutzen nautenek zera pentsatzen dute nitaz...	
11.	Talde batean, bakarrik sentitzen naiz gauza hauek gertatzen direnean:	
12.	Honako hauengan bakarrik dut konfiantza:	
13.	Jendeak maite nau honako hau egiten dudanean:	
14.	Nire indargunerik handiena honako hau da:	
15.	Ni.....naiz.	
16.	Atsekabetu egiten naiz honako hau gertatzen denean:	
17.	Antsietatea sentitzen dut honakoetan:	
18.	Gehien identifikatzen nauen ezaugarria honako hau da:	
NOR NAIZ?		

18. irudia

<sup>21</sup> Merche Aznárezek eta Mariluz Benitok aurkeztua (PAK proiektua: Zonako Ikerketa Taldea, Aragoi).

### **1.3 Ikasle arruntek kideren baten inklusio-prozesuan parte har dezatela eta elkar ezagut dezatela bultzatzeko estrategiak eta dinamikak<sup>22</sup>**

#### **1.3.1 Kideen arteko laguntza-sarea**

Susan eta Wiliam Stainback-ek agerian uzten dute ikaskide arrunten ekarpenak duen garrantzia urritasunen bat duten kideei laguntza emateko unean. Helburua, sare horren barruan, «Ikaskideen eta lagunaren sistema» antolatzea da. Sistema hori beren borondatez urritasuna duen kideren bati laguntza eskaintzen dioten ikasle-taldeek osatzen dute (ikastetxe barneko GKE antzeko bat litzateke). Laguntza materiala (alde batetik bestera joaten laguntzea, adibidez), laguntza morala (hura animatzea, denbora librean harekin egotea, esaterako atsedendaldi garaian, txangoetan edo bisitaldietan..) eta hezkuntza-laguntza izango da.

#### **1.3.2 Lagunen zirkuluak**

Ikasleak sensibilizatzeko eta gaitasun desberdinak dituzten beren kideen egoerari buruz hausnarrarazteko bitarteko gisa, egileek talde-dinamika bat proposatzen dute: lagunaren zirkulua. Hari esker grafikoki irudikatu daitezke lagun arrunten zirkuluen eta urritasunen bat duten ikaslearen lagun-zirkuluen arteko desberdintasunak. Lau zirkulu zentrokidetan honako gauza hauek idatziko ditugu: erdiko zirkuluan, laguntasun-harreman estuenerako pertsonen izenak; zirkulu periferikoenean, ikastetxean harreman profesionalagoa edo zirkunstantzialagoa duten pertsonen izenak –esaterako, irakasleren bat edo irakaslea ez den langileren bat-; erdiko zirkuluetan, lagunaren izenak, haiekin duten laguntasun-mailaren arabera. Horri esker ikusi ahalko ditugu urritasunik ez duen ikasle baten lagun-zirkuluen eta urritasunen bat duten ikaslearen zirkuluen artean izan ohi diren desberdintasun nabarmenenak. Azken hauek, erdialdeko zirkuluan pertsona helduen izenak jarri ohi dituzte, esaterako hezkuntza bereziko irakaslea, atezaina, eskola-autobuseko gidaria...) eta urritasunik ez dutenek, aldiz, zirkulu periferikoan jarri ohi dituzte haiek, eta erdian, beren adineko kideen izena jarri ohi dute.

#### **1.3.3 Lankidetzakontratuak**

Ikaslearen erantzukizuna hezteko baliabide gisa, Susan eta Wiliam Stainbackek Lankidetzakontratuak iradokitzen dituzte. Ikasle bati Ikaskideen eta Lagunen Sistemako talde batean sartzen denean, kontratu antzeko bat sina dezan eskatzen zaio. Bertan, bere gain hartuko dituen konpromisoak zehazten ditu (bere taldeko ikaskide bati emango dion laguntza, hark urritasunik izan ala ez) eta norke ordezkatuko duen egunen batean bere konpromisoa betetzetik ez badu. Sistema hau duen talde bateko kide diren gaitasun desberdinetako ikasleek ere kontratu bat sinatu beharko dute, beraiek ere beste kide bati laguntzeko konpromisoa har baitezakete.

#### **1.3.4 Laguntza-batzordea**

Egileek beraiek ere gelako talde bakoitzean laguntza-batzorde bat sortzea proposatzen dute. Batzorde horretako kide izango dira, txandaka, taldeko ikasle guztiak, urritasunen bat izan ala ez. Aldizka biltzen den batzorde horren helburua elkarri nola lagundu diezaioketen gehiago zehaztea da, beren taldea gero eta gehiago izan dadin ikasketa komunitate txiki bat, gero eta abegitsuagoa.

<sup>22</sup> Atal honetako estrategia guztiak gela inklusiboetan ikasle arrunten eta urritasunen bat duten ikaslearen arteko elkarrengana bultzatzera daude bideratuta, eta Stainback (1999) liburutik atera ditugu.

## 1.4 Talde-lanaren garrantzia azaltzeko eta eraginkortasuna frogatzeko jarduerak

### 1.4.1 Talde-lana: Bai ala ez?<sup>23</sup>

Jarduera honen helburua ikasleek aurreko urteetan talde-lanean izan dituzten esperientziak baloratzea da.

*Jardueraren garapena:*

Jarduera *Bi zutabeen teknika* (Fabra, 1992) izenez ezagutzen den talde-dinamika aplikatzean datza.

Honako prozesu hau jarraituko dugu:

- Ikasleek aurreko ikasturteetan (orain dauden ikastetxean edo beste batzuetan) talde-lanetan izandako esperientziak ekarriko dituzte gogora; hala, alderdi positiboak edo oroitzapen onak baloratuko dituzte, talde-lanari buruz dituzten oroitzapen ez hain onen edo oroitzapen txarren aldean.
- Arbela bitan banatuko da lerro bertikal batez. Alde batean «alderdi positiboak, oroitzapen onak» idatziko dugu, eta bestean, berriz, «alderdi negatiboak, oroitzapen txarrak» (19. irudia).
- Parte-hartzaileek pentsatu eta orri batean idatziko dituzte, bost minututan, aurretik eskolan edo institutuan talde-lanean izandako esperientzietatik geratu zaizkien oroitzapen onak edo alderdi positiboak, bai eta alderdi negatiboak edo oroitzapen txarrak ere.

Alderdi positiboak, oroitzapen onak	Alderdi negatiboak, oroitzapen txarrak

19. irudia

- Ondoren, bakoitzak alderdi positibo bat edo negatibo bat esango du ozen; bien bitartean, ikaskideren batek edo jarduera bideratzen duen irakasleak arbelean idatziko ditu, zutabe egokian. Behar beste txanda egingo dira, harik eta guztiek alderdi guztiak –positiboak zein negatiboak– esan arte. Ideia bat aurretik norbaitek esan badu, ez dago zertan berriz errepikatu.
- Azkenik, «Taldea lana: bai ala ez?» gaiari buruz zutabe bakoitzean idatzitakoa aztertze eskatuko diogu taldeari. Hortik aurrera, zer alderdi nagusitzen den azal diezaiekegu ikasleei; kontuan izanik garrantzitsuena ez dela kopurua, baizik eta nolakotasuna: alderdi positibo batek zenbait alderdi negatibok baino pisu espezifiko handiagoa izan dezake.
- Edonola ere, talde-lanean esperientzia positiboak izan nahi ditugula azaldu behar diegu ikasleei; izan ere, beste jarduera batzuetan ikusiko dugun bezalaxe, talde-lana banakako lana baino produktiboagoa da, baldin eta ondo antolatzen bada eta oroitzapen txarra eragin diguten alderdiak saihesten badira.

<sup>23</sup> Pere Pujolàs, et al. *Programa para enseñar a trabajar en equipos cooperativos en la Enseñanza Secundaria Obligatoria*. <http://www.uvic.cat/fe/recerca/ca/psico/cooperatiu-eso.html> [Kontsulta-data: 08-06-23].

## 1.4.2 Nire lanbiderik gogokoena<sup>24</sup>

Jarduera honen helburua talde-lana lanbide gehienetan oso garrantzitsua dela ikustea da; izan ere, ogibide horietan pertsona askok egiten dute lan, eta, zeregin osagarriak dituzten aldetik, elkarren beharra dute. Beste zeregin batzuek, berriz, pertsona bat baino gehiago behar dute, bakarrak ezingo bailituzke egin edo denbora asko beharko bailuke.

*Jardueraren garapena:*

- Jardueran parte hartuko duen ikasle bakoitzak gustuko dituen edo pixka bat gutxienez estimatzen dituen hiru lanbide pentsatuko ditu. Parte-hartzaile guztien artean lanbiderik onena zein den aztertu behar dute, bat bera ere errepikatu gabe. Horretarako, ikasle bakoitzak hiru pentsatuko ditu, eta ozen esango du lehenengo hautatu duena; beste ikasle batek aurretik esan badu, bigarrena botako du; horrekin ere gauza bera gertatzen bada, berriz, hirugarrena.
- Zer lanbide aztertu behar duten jakin ondoren, honako galdera hauei erantzun behar diete:
  1. Zertan datza lanbide hau? Zenbat itzazu lanbide hau egiten duten pertsonak gauzatzen dituzten zenbait zeregin (lauzpabost).
  2. Zeregin horietako gehienak gauzatzeko, lanbide bereko edo lanbide antzeko edo osagarri bateko pertsonen laguntza behar al dute lanbide horretan aritzen direnek? BAI/EZ
  3. Lanbide honetan aritzen direnek, taldean lan egiten jakin beharko lukete? BAI/EZ
  4. Irakatsi al dizue norbaitek inoiz, eskolan edo institutuan, modu sistematikoan taldean lan egiten? BAI/EZ
- Jarraian, parte-hartzaileak bospasei laguneko taldeetan bilduko dira eta lanbide bakoitzari buruz egin duten analisi txikia besteekin partekatuko dute. Hala, 20. irudian azaltzen den taula bete beharko dute.
- Ondoren, talde bakoitzaren guttizkoak bateratuko dituzte, aztertutako lanbide guztiei buruzko informazio hau lortzeko:
  - Zenbatek dute talde-lanaren beharra, eta zenbatek ez?
  - Zenbatentzat da garrantzitsua taldean lan egiten jakitea?
  - Zenbat ikaslek uste dute eskolan edo institutuan taldean lan egiten modu sistematikoan irakatsi dietela, eta zenbatek uste dute ezetz?
- Hemendik aurrera, beharrezko balorazioak egingo dira, talde-lanaren garrantziaz eta modu horretan lan egiten irakasteko beharraz jabetzeko.

Lanbidea	1. Lanbidearen berezko zereginak	2. Zeregin horiek taldean egin behar dira?		3. Garrantzitsua al da taldean lan egiten jakitea?		4. Taldean lan egiten irakatsi dizute eskolan edo institutuan?	
		BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
GUZTIRA:							

20. irudia

<sup>24</sup> Pere Pujolàs, et al. *Programa para enseñar a trabajar en equipos cooperativos en la Enseñanza Secundaria Obligatoria*. <http://www.uvic.cat/fe/recerca/ca/psico/cooperatius-eso.html> [Kontsulta-data: 08-06-23].

### 1.4.3 Manuelen taldea<sup>25</sup>

Talde-lanak banakako lanak baino ideia gehiago sortzen dituela erakutsi nahi du dinamika honek.

*Jardueraren garapena*

#### 1. Manuelen lantaldea kasuaren irakurketa

*Taldean lan egiteaz kokoteraino dago Manuel. Bakarrik hobeto lan egiten duela dio. Taldean lan egiten duenean denbora galtzen duela iruditzen zaio. Gainera, ez dago pozik bere lantaldearekin. Rosak ez du ezer egiten eta gainerakoek lanaz aprobetxatzen da. Juan berritsu hutsa da, ez du hitz egiteko txanda errespetatzen, eta ez die gainerakoei jaramonik egiten. Ramon bere ideiak inposatzen saiatzen da, eta beti egin behar izaten dugu berak dioena. Mariak ez du sekula ezer esaten, gainerako taldekideak entzun besterik ez du egiten eta ez du parte hartzen, propio eskatuta ere. Hitz batez, hemendik aurrera lanak bakarrik egitea erabaki du Manuelek.*

#### 2. Azalpena

- Bakoitzak kasua irakurri ondoren, talde guztiarekin hitz egin dezakegu; azaldu antzeko kasuren bat bizi izan duten aurretik, eskolan edo institutuan taldean lan egin behar izan dutenean; Juanen, Mariaren edo Manuelen antzeko kasuren bat ezagutu duten, eta abar.
- Jarduera dinamizatzen duen irakasleak honako azalpen hau eman dezake iritzi trukea amaitzeko:  
*«Ziur aski taldekide horien arazoa da ez dakitela taldean lan egiten eta elkarri laguntzen; besterik gabe, taldea ez da gai izan elkarrekin lan egiteko antolatzen. Aldiz, taldea ondo antolatuta egoteak abantaila asko ekartzen ditu. Orain egingo ditugun ariketekin taldean lan egitearen abantailak ikusten saiatuko gara».*

#### 3. Manuelen lantaldearen kasuari buruzko ariketak

- Ikasleek hiru zatitan (A, B eta C) banatutako orri bana izango dute (21. irudia). A atalean taldean lan egiteak dituen abantailak –Manuelek besterik dioten arren– idatziko dituzte banaka; alegia, taldean lan egitearen aldeko arrazoiak adieraziko dituzte.
- Ondoren, ikasleak lau zapabost laguneko taldeetan bilduko dira eta A atalean idatzi dituzten erantzunak bateratuko dituzte. Lehenengo txandan ikasle bakoitzak abantaila bat –bakarra– esango du, eta taldekide batek (idazkari-lanak egingo dituenak) beste orri batean idatziko ditu. Behar beste txanda egingo dira, harik eta taldeko kide guztiek txantiloiko A atalean idatzi dituzten abantaila guztiak aipatu arte. Taldekide batek aurretik beste batek aipatu duen abantaila bera baldin badu, ez dute taldeko kide guztiek aipatutako abantaila guztiak biltzen dituen beste orri horretan apuntatuko. Jarraian, ikasle bakoitzak txantiloiko A atalean idatzi ez zituen beste abantaila batzuk idatziko ditu txantiloiko B atalean.
- Azkenik, ikasgelako talde guztiek talde bakoitzaren erantzunak bateratuko dituzte. Lehendabiziko txandan, talde bakoitzak jaso duen abantaila bat –bakarra– aipatuko da, eta behar beste txanda egingo dira, harik eta taldean lan egitearen aldeko arrazoi guztiak atera arte. Ikasle batek idazkari nagusi lanak egingo ditu, eta talde guztien artean topatu dituzten arrazoi guztiak apuntatuko ditu arbelean. Horren ondoren, ikasle bakoitzak idatziko ditu bere txantiloiko C atalean zerrenda orokorreko abantailak; hain zuzen ere, A eta B atalean idatzi ez zituenak.

#### 4. Ondorioak:

---

<sup>25</sup> Santiago Marínek emana (PAK proiektua: Extremadurako Ikerketa Taldea), Gómez, García eta Alonsoren egokitapena (1991).

Jarduera bideratzen duen irakasleak eskua altxatzeko eskatuko die norberaren txantiloiko B eta C ataletan abantailaren bat idatzi duten ikasleei. Txantiloiko A atalean amaierako zerrendako abantaila guztiak idatzi dituenik ez da egongo, ziur asko. Norbait balego, bere taldeko kideengandik edo beste talde batzuegandik zerbait ikasi duen seinale; izan ere, abantaila gehiago aurkitu dituzte denen artean banaka baino.

Hori da taldean lan egitearen abantaila handienetako bat (litekeena da zerrenda orokorrean ez ateratzea...): bananako lanak baino ideia gehiago sortzen ditu.

<b>TALDE-LANAREN ALDEKO ARRAZIOIAK</b>	
A.	
B.	
C.	

#### 1.4.4 Lurrealde urdina<sup>26</sup>

*Manuelen lantaldearen dinamika bera jarraitzen du, baina erantzun-orrako hiru ataletan (ikus 21. irudia) idatzi ordeztan –lehenengo, banaka; gero, lauzpabost laguneko taldeetan; eta, azkenik, ikasgelako talde guztiak batera–, taldean lan egitearen abantailak adierazteko, irakasleak irakurriko edo azalduko duen *Lurrealde urdina* kontakizunean agertzen diren animalia guztiak idatziko dituzte.*

Ondorioa argia da: zenbat eta gehiago izan zerbait gogoratzeko, orduan eta oroimen handiagoa izango dugu. Taldean lan egiteak emaitza hobekak lortzeko aukera ematen digu.

##### *Lurrealde urdina*

*Nire arreba termiten erregina zen. Noski, ez zen benetako termita bat, baina mendian jolasten genuen guztietan esaten zidan. Nik matxinsaltoen errege izatea beste aukerarik ez nuen, termitek baino gutxiago agintzen nuela konturatu bainintzen. Armiarman errege ere izan nintekeen, baina ez zaizkit inoiz gustatu ez armiarman, ez kakalardoak, ez euliak, ez eltxoak, ez erleak, enbarazu eta zizta egiten baitute, ezta tximeletak ere, hain hegal politikak dituzten arren... Hortaz, matxinsaltoa bezala landare eta zuhaitz artean gora eta behera salto egitearekin konformatzen nintzen. Nire arreba, termiten erreginak, ordea, jauregi bat eraiki zuen lurpean.*

*Nolanahi ere, aukeratzekotan (arreba ikusten ez nauen honetan) zaldia izatea ere gustatuko litzaidake, behin Andorran izan ginenean ikusi genituenak bezalakoxea, Pirinioetako mendi altuetan barrena korrika ibiltzeko. Lehoia, tigre, pantera, otsoa... Edo jirafa, zebra, elefantea, hipopotamo edo errinozerontea izatea ere gustatuko litzaidake.*

*Eta dortoka bat izango banintz? Txikia nintzenean etxean geneukan hura bezalakoa, ihes egin zuen hura? Diotenez, dortokak luze bizi dira, pertsonak baino gehiago. Sugandila bat izatea ez legoke gaizki, egun osoa ematen baitute eguzkitan etzanda. Eta, zer diozue hain ondo mozorrotzen diren kameleoie buruz? Eta beti misterioz inguratuta dauden sugeak?*

*Imajinatzekotan, hegan egin dezakedala eta munduaren punta batetik bestera hegan egiten duten txori horietako bat naizela imajina nezake; hala, munduko toki asko ezagutuko eta lagun asko egingo nituzke, esaterako, enarak eta zikoinak. Baina pentsatu, era berean, erregina bat bezain lirainak diren arranoetan, edo hain ehiztari onak diren belatzetan. Gurean, txikiak ginenean, oso ondo abesten zuen kanario bat genuen, eta oso ondo abesten duten beste txori batzuk ere badaude, tartean, urretxindorra. Egon badaude hitz egiten duten txoriak ere, esate baterako, loroak. Bai eta gauez baino ateratzen ez direnak ere, esaterako, hontza. Halaber, badira hegan egiten ez dutenak ere, tartean, pinguinoak, ostrukak eta oiloak. Aldiz, hegan egiten duten baina txoriak ez diren animaliak ere badaude, hala nola, saguzarra.*

*Baina, munduan barrena ibitzeko arraina izatea bezalakorik ez dago. Etxean dugun mundubolan ikusi dut itsasoak ia mundu osoa estaltzen duela. Arraina izango banintz, ibiltzeko eta igeri egiteko aukera izango nuke, eta itsasoetan barrena ibiliko nintzateke etengabe. Koloretako arraina izan ninteke, arrainontzikoak bezalakoxea. Amak jateko jartzen dizkidan arrainak, ordea, ez zaizkit gustatzen; hala nola, sardina, legatza eta zapoa. Ez litzaidake txibia izatea gustatuko, ezta txokoa edo ganba ere. Aitzitik, marrazoa edo ezpata-arraina izango nintzateke gustura, baita beso askoko olagarro erraldoia ere.*

*Diotenez, izurdeak, fokak eta itsas lehoiak ez dira arrainak. Ai! Askok gustatuko litzaidake izurdea izatea eta olatu altuenen artean gora eta behera ibiltzea, telebistan eman zuten dokumental batean ikusi nituenen gisa. Balea izatea ere ez litzateke nolanhiko kontua, baina asper aurpegia dute. Hala ere ziur nago oso ondo pasatzen dutela eta gu garela pozik dagoen balea batek zer-nolako aurpegi duen ez dakigunak...*

<sup>26</sup> Vilanova i la Geltrúko (El Garraf, Bartzelona) Sant Jordi ikastetxeko Antonia López Sillerok emana.



*Tira, inongo errege izatekotan, itsasoko errege izatea gustatuko litzaidake! Oraingoz, nahikoa daukat hondartzara joatearekin eta, itsasoaren eta zeruaren artean, zeruertzean dagoen urdin koloreko marra horretatik bidaiatzen dudala amestearekin. Ziur naiz marra horretan balea izan naitekeela, zeruan hegan egin dezakedala eta etxean dudan mundu bola horretan ikusten den moduko itsasoa ikus dezakedala: izugarria, urdina eta amaierarik gabekoa.*  
(Tomás Molinaren *Contes de l'Univers* kontakizunaren egokitzapena.)

#### 1.4.5 NASaren jokoa<sup>27</sup>

Dinamika honek helburu bikoitza du: batetik, taldean hartutako erabakiak banaka hartutakoak baino egokiagoak direla ikustea, eta, bestetik, taldean egindako lana, oro har, banaka egindako lana baino eraginkorragoa dela ikustea eta taldean egindako lanari buruz hausnartzea.

*Jardueraren garapena:*

1. NASaren jokoaren txantiloia (ikus 22. irudia) emango diegu ikasleei, astronautak direla azalduko diegu eta beharrezko jarraibideak emango dizkiegu:

*«Bost astronautaz osatutako talde batek istripua izan du espazio-ontziarekin ilargian, eta espazio-ontzitik atera egin behar izan dira. 300 kilometro egin behar dituzte oinez, harik eta Lurrera eramango dituen beste ontzi batera iritsi arte.*

*Ontzian zeramaten material guztitik 15 objektu (ondoko koadroan ikus daitezke) baino ezin izan dituzte aprobetxatu.*

*Biziraun ahal izateko erabakiak hartu beharko dituzte, bai eta ezinbesteko objektuak eta erabilgarri izan dakizkiekeenak ere, baldin eta ilargiaren zati argizatuan dagoen beste ontziraino iritsi nahi badute. Objektu batzuei edo beste batzuei lehentasuna eman, astronauta-taldea salbatuko da ala ez».*

▪ *Objektuak sailkatu behar dituzue, garrantzi handiena duenetik gutxien duenera, astronautek beste ontzira iristeko egin behar duten bidean eraman ditzaten.*

▪ *Jar iezaiozue 1 zenbakia objektu garrantzitsuenari; alegia, azkena baztertuko zenuketinari; ondoren, 2 zenbakia bigarren garrantzitsuenari... Eta, horrela, 15 zenbakia jarri arte; zenbaki hori duena izango da, bada, baztertuko zenuketin lehenengo objektua.*

2. Txantiloiko lehen zutabea beteko dute bakoitzak aurrez egindako sailkapenarekin, eta, ondoren, erantzunak elkarren artean komentatzeko eskatuko diegu.

3. Denek lehen zutabea bete dutenean, lauzpabost laguneko taldeetan bilduko dira, eta honako jarraibide hauek emango dizkiegu:

*«Orain hirugarren zutabea bete behar duzue talde bakoitzak erabaki duen sailkapenarekin, baina honako ideia hauek kontuan hartuta: ariketa honen helburua erabakiak taldean hartzea da, errealitatekin ahalik eta gertuen dauden akordioak lortze aldera.*

*Erabakiak guztien adostasunez hartu behar dituzue. Horrek esan nahi du objektu bakoitzari ematen diozuen puntuazioa (1etik 15era) aho batez erabaki behar duzuela, denak ados egotea zaila bada ere eta ziurrenik erabakitzen duzuen guztientzat ona izango ez bada ere.*

*Oharrak:*

▪ *Ez saiatu zuen iritzia besteei inposatzen. Ahal beste arrazoitu erabakia.*

▪ *Ez amore eman berehala ados egoteko edo gatazkak saihesteko.*

---

<sup>27</sup> Pere Pujolàs et alt. *Programa para enseñar a trabajar en equipos cooperativos en la Enseñanza Secundaria Obligatoria* lanetik egokitua. <http://www.uvic.cat/fe/recerca/ca/psico/cooperatius-eso.html> [Kontsulta-data: 08-06-23).

Objektuak	1	2	«A» ALDEA	3	4	«B» ALDEA
	Bakoitzaren auresailkapena	NAS Aren sailkapena		Taldearen sailkapena	NAS Aren sailkapena	
Pospolo-kaxa						
Jaki kontzentratuen lata						
20 m nylon soka						
30 m <sup>2</sup> jausgailu-arropa						
Su eramangarria						
7,65 mm-ko bi pistola						
Lata bat esne-hauts						
50 litroko bi oxigeno-bonbona						
Izarren mapa						
Karbono dioxidoa duten botilaz betetako txalupa pneumatikoa						
Iparrorratz magnetikoa						
20 litro ur						
Hutsean erretzen duten bizi-seinaleko 4 kartutxo						
Lehen laguntzako maleta						
Uhin ultramotzen hargailu-igorgailua						
<b>GUZTIRA «A»</b>				<b>GUZTIRA «B»</b>		

- *Ez saiatu gatazkak konpontzen ados ez zaudetenean; alegia, ez hautatu gehiengoak nahi duenaren arabera edo ez kalkulatu objektu bakoitzari emandako puntuazioaren batezbestekoa, ez egin itunik, eta abar.*
  - *Kontrako iritziak probetxuzko ekarpenetzat hartu, ez nahasmentzat.*
  - *Elkarren artean erabakiak hartzeko behar adina denbora erabil dezakezue.»*
4. Talde bakoitzari hirugarren zutabea betetzeko denbora emango diogu.
5. Azkenik, jarduera bideratuko duenak NASAKo teknikariek egindako sailkapena diktatuko du, eta ikasleek gainerako zutabeetan (2. eta 4. zutabeetan) kopiatuko dute. Hona hemen sailkapena: 15-4-6-8-13-11-12-1-3-9-14-2-10-7-5. (Ikus sailkapen horren justifikazioa 23. irudiko taulan.)

Ordena	Objektua	Justifikazioa
1	Oxigeno-bonbonak	Arnasa hartzeko beharrezkoak
2	Ura	Izerditzearen ondorioz ez deshidratatzeko
3	Izarren mapa	Espazioan orientatzeko baliabide beharrezkoenetako bat
4	Jaki kontzentratuak	Eguneroko elikadurarako beharrezkoak
5	FM hargailu-igorgailua	Oso erabilgarria laguntza eskatzeko eta ontziarekin komunikatzeko
6	20 m nylon soka	Erabilgarria zaurituak arrastatzeko eta garraiatzen saiatzeko
7	Lehen laguntzako maleta	Oso erabilgarria istripuetan
8	Jausgailu-arropa	Erabilgarria eguzkitik babesteko
9	Karbono dioxidoa duten botilaz betetako txalupa	Erabilgarria izan daiteke leizeak gainditzeko
10	Seinale-kartutxoak	Erabilgarriak ontzitik entzun ahal izan diezaguten
11	7,65 mm-ko pistolak	Horiekin erreakzio bidezko bultzada hartzen saiatu gaitzke.
12	Esne-hautsa	Erabilgarria izan daiteke urarekin nahastuta
13	Su eramangarria	Erabilgarria da eguzkiak argiztatzeko ez duen ilargiaren zatian
14	Iparrorratz magnetikoa	Ez da erabilgarria, ilargian ez baitago eremu magnetikorik
15	Pospoloak	Ez dira erabilgarriak, ilargian ez baitago oxigenorik

23. irudia

6. Ondoren, ikasleek beraiek (banaka zein taldeka) egindako sailkapenen eta NASAK egindakoaren arteko desbideratzeak kalkulatu dituzte. Alegia, lehen eta bigarren, eta hirugarren eta laugarren zutabeen arteko desbideratzeak, hurrenez hurren. Desbideratze horiek kalkulatzeko, objektu bakoitzak lortutako puntuazioari NASAKo teknikariek emandako puntuazioa kenduko diote, zeinu positiboa edo negatiboa kontuan hartu gabe (hots, ezberdintasuna zifra absolututan idatziko dute). Lehen eta bigarren zutabeen arteko desbideratzearen emaitza «A» ALDEA izeneko zutabean idatziko dute; hirugarren eta laugarren zutabeen artekoa, berriz, «B» ALDEA izenekoan.

7. Azkenik, «A» eta «B» aldean guztizkoa kalkulatu dute; emaitzak GUZTIRA «A» eta GUZTIRA «B» jartzen duen tokian idatziko dituzte, hurrenez hurren.
8. Guztizkoen emaitzak kontrastatu eta 24. irudiko koadroan jasotzen diren interpretazio arauen arabera interpretatuko dira.
9. Ikasleek ondorioen atala beteko dute; horretarako, talde bakoitzean eta talde osoan egindako komentarioak kontuan izango dituzte.
10. Talde bakoitzak autoebaluazioa egingo du. Horretarako, 25. irudiko koadroan agertzen den galdelegiari erantzun beharko dio.
11. Saioa amaitzeko iritziak bateratuko dituzte talde osoarekin, esperientziaren alderdi esanguratsuenak nabarmentze aldera.

1. Guztira «B» ataleko zifra Guztira «A» atalekoa baino txikiagoa denean, taldean hartutako erabakiak banaka hartutakoak baino kalitate hobea du. Gehienetan gertatu ohi da hori.
2. Guztira «A» ataleko zifra Guztira «B» atalekoa baino txikiagoa denean, ziurrenik taldeak ez du behar bezala funtzionatu. Honako hauek izan daitezke arrazoietakoz batzuk:
  - Aukerak ez dira argudio logikoekin hausnartu edo eztabaidatu.
  - Taldeko kideren batek gainerakoak baldintzatu ditu.
  - Batzuek, jakin badakiten arren, ez dute esaten lotsatiak edo berekoiak direlako.
  - Desadostasunak eta tentsioak egon dira taldearen barruan...

24. irudia

#### TALDEAREN AUTOEBALUAZIOA EGITEKO GALDETEGIA

1. Denek parte hartu al dute talde-lanean?
2. Egon al da gehiegi parte hartu duenik?
3. Egon al da taldeko gainerako kideen parte-hartzea oztopatu duenik?
4. Guztiok batera hitz egiten zenuten?
5. Denek entzuten zioten hizketan ari zenari?
6. Desbideratu al zarete egin beharreko lanetik? Maiz?
7. Zer sistema erabili duzue erabakiak hartzeko? ados jartzea, bozketa, egon al da iritzia inposatu duenik?
8. Eskatu al duzue laguntzarik behar izan duzuenen?
9. Laguntzarik eman duzue eskatu dizuetenean?
10. Harreman ona egon al da taldeko kide guztien artean?
11. Pozik al zaudete egindako lanarekin? Lortu al dituzue aurreikusitako helburuak?
12. Zer zailtasun izan dituzue?
13. Nola konpondu dituzue?
14. Hurrengo talde-lanerako ondorioak eta iradokizunak.

25. irudia

#### 1.4.6 Erabakia hartu behar dut

Talde-dinamika honen helburua honako hau da: taldean hartutako erabakiak banaka hartutakoak baino egokiagoak eta eraginkorragoak direla ikustea.

*Jardueraren garapena:*

1. Irakasleak honako kasu hau azalduko die parte-hartzaileei:

*«Neska-mutil talde batek Aynorrek antolatutako irteera bat egin du Pila mendilerroko herriak bisitatzeko. Irteera hau egiteko Fundownen autobusa erabili dute, baina, zoritxarrez, autobusak matxura izan du bi herriren artean eta ezin izan du aurrera jarraitu. Autobusa matxuratu den inguru horretatik ez da ia inoiz inor pasatzen, eta ezin da mugikorraren bidez laguntzarik eskatu, ez baitago estaldurarik.*

*Aurreko guztia kontuan izanik eta ikusirik, gainera, uztaila dela, eguerdia, eta autobusari eguzkiak bete-betean ematen diola, premiazko neurri bat hartu dute: bost boluntariok oinez egingo dute gertuen dagoen herriraino dagoen hamar kilometroko tartea eta laguntza eskatuko dute. Herri horretan tailer mekaniko bat eta zenbait telefono kabina daude.*

*Baina orain beste arazo bat sortuko da, bost boluntarioek objektu eta hornidura jakinak beharko dituzte herrira iristeko.*

*Autobusa ikasleek irteerarako eramandako gauzaz beteta dago. Gauza horien artean, bada, gertuen dagoen herrira iristea errazago egingo diguten bost hautatu behar ditugu».*

2. Jarraian, irakasleak objektuen zerrenda eta hautatu dituzten bost beharrezko objektuak apuntatzeko taula (26. irudiko 1. fitxa) emango dizkie ikasleei.
3. Ondoren, irakasleak lau laguneko taldeetan biltzeko eskatuko die ikasleei, eta horien artean hautatutako objektuak azalduko dituzte ados jartzen saiatzeko (27. irudiko 2. fitxa).
4. Irakasleak bost objektuak azal ditzala eskatuko dio talde bakoitzari, bat datozen ikusteko eta parte-hartzaile guztiek adostutako aukeraketa bakarra egiteko. Ondoren, egokitze jotako aukeraketarekin (28. irudian jasotakoarekin) alderatuko du.
5. Saioa amaitzeko, iritziak bateratuko dituzte talde osoarekin ikasgelan egindako lanaren alderdi esanguratsuenak nabarmentzeko.

### ***Erabakia hartu behar dut. 1. lan-fitxa***

Izena:

Data:

*Jarraian agertzen den objektu zerrendatik, hautatu gertuen dagoen herrira joateko biderako garrantzitsuak iruditzen zaizkizun bost.*

*Gogoan izan:*

- *Autobusa matxuratu den tokitik ia ez da inor pasatzen eta ez dago estalduraririk.*
- *Uztaila da, eguerdia, eta bero handia egiten du.*
- *Gertuen dagoen herriraino 10 kilometro egin behar dira oinez.*

#### **AUTOBUSEAN DAUDEN OBJEKTUAK**

1. Irrati-kasete bat
2. Urez betetako kantinplora
3. Berokiak
4. Eguzkitik babesteko txapelak
5. Telefono mugikorrak
6. Inguruko mapa bat
7. Janariz betetako ontziak
8. Botikin bat
9. Bideo-jokoen kotsola eramangarri bat
10. Linternak

OBJEKTUAK
1.
2.
3.
4.
5.

. irudia

***Erabakia hartu behar dut. 2. lan fitxa***

Data:

Taldekideen izenak:

1	
2	
3	
4	
5	

Saia zaitez zure taldekideekin herriraino ondo iristeko eraman behar zenituzketen objektuei buruzko **adostasuna** lortzen. Idatzi objektu horiek ondorengo koadroan.

Adostasuna lortzeko gogoan izan honako hauek:

- Ez inposatu iritzi pertsonalik.
- Aukeraketa arrazoitu behar duzue.
- Gainerakoen iritziak errespetatu behar dituzue. Probetxuzko ekarpenak direla pentsatu behar duzue.
- Ez eman arrazoia gainerakoei eztabaidak saiheste aldera, besteen ekarpena zuzena delakoan egon behar duzue onartu baino lehen.

**OBJEKTUAK**

- |    |
|----|
| 1. |
| 2. |
| 3. |
| 4. |
| 5. |

27. irudia

***Objektuen aukeraketa zuzena (eta justifikazioa)***

- |   |
|---|
| 1. UREZ BETETAKO KANTINPLORAK. (Uztaila da, eguerdia, eta bero handia egiten duenez, hidratatzea beharrezkoa da.) |
| 2. EGUZKITIK BABESTEKO TXAPELAK (Zorabiatu ez gaitezen edo eguzkitan ibiltzean intsolaziorik izan ez dezagun.)    |
| 3. INGURUKO MAPA. (Gal ez gaitezen).  |
| 4. JANARIA. (Indarrak berritzeko eta ibilaldia egin ahal izateko.)  |
| 5. BOTIKINA. (Ezustekorik sortzen bada ere bidean.)   |

28. irudia

## **1.5 Ikasleek modu kooperatiboan lan egin dezaten prestatzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak**

### **1.5.1 Koloretako mundua**

Homogeneotasun- edo heterogeneotasun-irizpideei jarraituta, taldeak osatzeari buruzko hausnarketa egiteko oso talde-dinamika erabilgarria da.

*Helburuak:*

- a) Gizarte-taldeak osatzeko jarraitzen diren irizpideetara hurbiltzea.
- b) Ezberdinak direnak diskriminatzeko joera frogatzea.
- c) Homogeneotasuna eta aniztasuna lantzea taldeen eraketan.

*Gutxi gorabeherako denbora:* 20 minutu.

*Materialak:* Koloretako pegatinak.

*Jardueraren garapena:*

Parte-hartzaile guztiak paretari bizkarra emanaz jarriko dira, begiak estalita izango dituzte eta isilik egongo dira. Parte-hartzaile bakoitzari pegatina bat jarriko diogu kopetan. Ezingo dute ikusi zer kolore tokatu zaien. Parte-hartzaile guztiei pegatina jarritakoan, begiak irekitzeko eskatu eta elkartzeko bi minutu dituztela esango diegu. Bati ez diogu pegatinatik jarriko, edo gainerakoek ez duten kolore batekoa jarriko diogu.

*Jardueraren monitorearentzako gida:*

- Erreparatu ea zeinek gidatzen duen jendea kolore bakoitzeko taldeetara; dela besteei eutsiz, dela eramanez.
- Erreparatu pegatina desberdina duen pertsonaren adierazpenei.
- Erreparatu gainerakoak jarraitzen dituzten pertsonetan.
- Ikusi jendeak zer egiten duen jokoaren hasieran, zeintzuk hasten diren gainerakoak elkartzen.
- Erreparatu jendeak koloreka elkartzeko duen joeran.

*Ondorioak / Ebaluazioa:*

Taldeak osatzen ditugunean modu homogeneoan sortu ohi ditugu, lagunekin edo gurekin antza dutenekin elkartzen gara, eta askotan, nahi gabe bada ere, ezberdinak direnak diskriminatzeko joera dugu. Berdinak direnekin eta berdin pentsatzen dutenekin elkartzen bagara, diskurtsoa homogeneizatuko dugu, eta ikasteko prozesua, berriz, txirotu.

### **1.5.2 Lankidetzan aritzen gara...**<sup>28</sup>

Jarduera honen helburuak dira, batetik, taldean elkarri lagunduz lan egitea zer den ikustea, eta, bestetik, lankidetzan-lanaren zenbait alderdi garrantzitsuz jabetzea –esaterako, elkarri laguntzea, errespetua eta solidaritatea–.

*Jardueraren garapena:*

1. Ikasleak lau laguneko taldeetan banatuko dira, eta bakoitzari ondorengo bi testuetako bat emango diogu, arretaz irakur dezaten.

*1. testua: Antzarak*

---

<sup>28</sup> Pere Pujolàs et al. *Programa para enseñar a trabajar en equipos cooperativos en la Enseñanza Secundaria Obligatoria* lanetik egokitua. <http://www.uvic.cat/fe/recerca/ca/psico/cooperatius-eso.html> [Kontsulta-data: 08-06-23).



*«Datorren udazkenean, negu-pasa hegoaldera doazen antzarak ikusten dituzunean, V forman hegan egiten dutela ohartuko zara. Agian interesatuko zaizu jakitea zientziak zer dioen modu horretan hegan egitearen inguruan. Frogatu denez, bada, txori batek hegoak astintzen dituzenean mugimendu bat sortzen du airean, eta mugimendu horrek V forman bere atzean doan txoriari laguntzen dio. Andana osoaren boterea txoria bakarrik joanda baino ehuneko 77 handiagoa da gutxienez. Norabide bera partekatzen duten eta komunitate-zentzua duten pertsonak errazago eta azkarrago irits daitezke nahi duten tokira, elkarri laguntzen baitiote.*

*Antzara bat taldetik ateratzen den bakoitzean, airearen erresistentzia igartzen du berehala, bakarrik hegan egiteak duen zailtasunaz jabetzen da, eta taldera itzultzen da azkar, aurretik doan kidearen botereari onura ateratze aldera. Antzararen adimena izango bagenu, norabide berean doazen horiekin batera joango ginatke.*

*Antzaren buruzagia nekatzen denean, atzeko posatuetako batera pasatzen da, eta beste batek hartzen du haren tokia. Emaitza hobekak lortuko ditugu txandak lanik zailenei begira antolatzen baditugu. Atzean doazen antzarek karraka egiten dute aurrekoak adoretzeko, abiadurari euts diezaioten. Adore emateak onura asko eragiten ditu.*

*Azkenik, antzara bat gaixotzen denean edo tiro batekin zauritu eta erortzen denean, beste bi antzara taldetik atera eta atzetik joaten dira laguntzeko eta babesteko. Gaixo edo zaurituta daudenekin gelditzen dira hegan egiteko gai diren bitartean edota harik eta hil arte; horietako bat gertatu arte ez dira beren andanetara edo beste talde batzuetara itzultzen. Antzara baten adimena izango bagenu, bata bestearen ondoan egongo ginatke laguntza eta babesa emateko».*

## 2. testua: Batzarra aroztegian

*«Aroztegi batean batzar bitxi bat egin zuten behin: tailerreko tresna guztiak bilera egin zuten desadostasunak konpontzeko. Tresna zaharrenetako eta errespetatuenetako batek, mailuak, presidentetza hartu zuen bere gain, baina batzarrak uko egiteko eskatu zion berehala. “Zergatik?”, esan zuen mailuak zur eta lur. “Tira, zarata handitxoa egiten duzulako, eta, gainera, egun osoa kolpeka ematen duzulako”, erantzun zioten. Mailuak kexak onartu zituen, baina torlojua ere kanporatzeko eskatu zuen. Arrazoitu zuenez, erabilgarri izateko bira asko eman behar zituen... Salaketa horren aurrean, torlojua kaleratu egin zuten, baina horrek, aldi berean, lizpaperrarekin gauza bera egiteko eskatu zuten. Batzar guztiaren aurrean agertu zuen oso tratu zakarra zuela eta bere izaerak gainerakoak urratzen zituela. Horrelako ebidentzia baten aurrean, lizpaperrak ados egon beste aukerarik ez zuen, baldin eta metroa ere batzarretik kaleratzen baldin bazuten; izan ere, etengabe aritzen zen bere irizpideen arabera denak neurtzen, perfektu bakarria izango balitz bezala.*

*Une horretan, arotza sartu zen; mantala jantzi eta lanari ekin zion. Taula bat eta bi motatako xaflak hartu zituen. Metroa, mailua, torlojua eta lizpaperra erabili zituen. Azkenik, bi koloretako xafla horiek –bata pinu kolorekoa, oso argia, eta bestea intxaurrondo kolorekoa, ia beltza– xake-aula eder bilakatu ziren, dontzeila baten azala bezalako gainazal fin eta leuna zuena.*

*Laneguna amaitu eta aroztegia hutsik gelditu zenean, tresnek batzarra hasi zuten berriro eta eztabaidarekin jarraitu zuten. Orduan, eskuzerrak hartu zuen hitza eta honako hau esan zuen tonu irmoan: “Jaun-andreok, argi gelditu da akatsak ditugula, baina, aldiz, arotzak gure dohainekin egiten du lan. Eta etekina atertzen die. Horrexek egiten gaitu gu guztiok baliotsu. Aski da alde txarretan pentsatzeaz, kontzentratu gaituz behingoz denon alde onetan”. Orduan, batzarrak ikusi zuen mailua indartsua zela, torlojuak batu eta prentsatu egiten zuela, lizpaperra bikaina zela leuntzeko eta laztasunak kentzeko, eta metroa, berriz, zehatza eta doia zela. Bat-batean konturatu ziren talde bat osatzen zutela, eta, batera arituz gero, kalitate handiko gauzak egiteko gai zirela. Elkarrekin lan egitearekin eta horrek ematen zion indarrekin harro sentitu ziren».*

2. Talde bakoitzak eman diogun testuari buruzko hausnarketa egingo du. Honako argibide hauek baliatuz hausnarketa egiteko:

- Zer ondorio atera dezakegu testu honetatik xede bera duen eta helburu bera lortu nahi duen pertsona-talde bati aplikatzen badiogu?
- Zein izan liteke helburu hori «lankidetzan ikasteko talde» batean?
- Noiz esan dezakegu elkarlanean gabiltzala talde baten barruan? Zer da lankidetzan aritzea?

Jarduera bideratuko duen irakasleak gogoan izan behar ditu uneoro testu bakoitzaren oinarritzko ideiak taldeen hausnarketa bideratzeko orduan:

*1. testua: Basa-antzarak.*

- Helburu bera eta komunitate-zentzua duten pertsonak errazago lor ditzakete xedeak, ahaleginak elkartzen badituzte eta elkarri laguntzen badiote.
- Talde-lanean emaitza hobekien lortzen dira lanak egiteko txandak egiten baditugu, batez ere zailenak edo gogorrenak egiteko.
- Kide bati adre ematea oso onuragarria izan daiteke uzkurtuta badago edo kemenik gabe badago.
- Solidaritatea, laguntza behar duen kidearen ondoan egotea, lankidetzan-lanaren oinarrietako bat da.

*2. testua: Batzarra aroztegia.*

- Denok dugu dohainik, gainerakoek zerbitzura jar dezakegunik.
- Dugun onena emateko gai bagara, denon artean gauza garrantzitsuak lortu ahal izango ditugu.
- Garen moduan onar gaitzaten, lehenik eta behin gainerakoak diren bezala onartu behar ditugu; alegia, ezberdintasunak errespetatuta.

3. Talde bakoitzak orri batean idatziko du honako esaldi hauek amaitzeko burura etortzen zaion guztia: Lankidetzan aritzen gara...

Adibidez:

- Lankidetzan aritzen gara batuta baldin bagaude, helburu bera baldin badugu.
- Lankidetzan aritzen gara berdintasun harremana baldin badugu, batzuk beste batzuen gainetik ez daudela ikusten dugunean, denek baloratzen bagaituzte eta denok sentitzen badugu geure burua baloratu.
- Lankidetzan aritzen gara taldeko kide bati gertatzen zaiona guztioi axola bazaigu.
- Lankidetzan aritzen gara elkar laguntzen badugu.
- Lankidetzan aritzen gara elkar animatzen badugu.
- Lankidetzan aritzen gara lagunak bagara.
- Eta abar.

4. Azkenik, esaldi horiek bateratuko dituzte eta kartoi meheetan idatziko dituzte, gero ikasgelako hormako taulan ipini ahal izateko.